



**Antonio Alustiza Artzain**  
**Zakur Lehiaketan nagusi** **03**

Aresoarrak bederatzigarren aldiz jantzi du aurten Nafarroako Artzain Zakur Lehiaketako txapela. Azken hiru urteotan *Tiki*/bere zakurra izan du ondoan.



**Igantzi jantzi du Herriz**  
**Herriko txapel bat** **36**

Irailaren 6an erabaki ziren Nafarroako Herriz Herri Txapelketako saridunak. Lehen eta bigarren konbinatuetakoa saioak jokatu ziren eta bigarreanean Igantzi irabazi zuen.

2008ko irailaren 18a • XXVIII. urtea  
[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)



N-121A ERREPIDEKO OBRAK ATZERATUAK

**04** **Igantzi-Bera** zatiko trafiko arazoek oraindik luzaroan segituko dute



**ORDOKI**  
altzariak

ERAKUSKETA: Bittiria 26  
SALTOKIA: Plaza Zaharra 27  
Tfnoa: 948 63 77 80 • LESAKA



# ESKOLA BERRIA

## Ile-apainketa, estetika

Erdi eta goi maila. Elierrek urteetan jendearen estilismoaren garapenean lan egin duen profesional taldea jarriko du zure esku. Goza ezazu bere instalazio modernoekin eta zure garapen profesional eta pertsonalerako behar dituzun aholkuekin...

**MATRIKULA ZABALIK**

**943 01 36 27**

www.elier.eu • elier@elier.eu  
ADUANA 27 IRUN

**elier**  
escuelaimagenpersonal®



## DATUAK...

- Abuztuaren 31n jokatu zen Uharteko Arakilen Nafarroako Artzain Txapelketako XLI. edizioa eta Antonio Alustiza aresoarra eta *Ttiki* bere zakurra atera ziren garaile.
- Bere bederatzigarren txapela jantzi zuen Alustizak, hirugarrena *Ttikiren*. Egindako lanarekin gustura gelditu zela aitortu digu.
- Nafarroakoa irabazita, igande honetan, irailak 21, Axpen (Bizkaia) jokatu den Euskal Herriko Txapelketan Nafarroa ordezkatu du.



Antonio ALUSTIZA *Aresoko artzaina, Nafarroako txapelduna*

UTZITAKO ARGAZKIA

# «la egunero ibiltzen naiz ardiekin eta orduan ikasten da zakurrak hezitzen»

## Gurutze PIKABEA

**Aurten irabazi duzun Nafarroako txapelarekin zure bederatzigarrena jantzi duzu...**

Bai, hala da. Ez dut ondo gogoratzen baina 93an irabaziko nuen lehenbizikoa, Argi zakurrekin. Gero hiru txapel atera nituen *Jat*ekin, eta beste bi *Argi*ekin. Azken hiru urteotan *Ttiki* zakurrekin jantzi dut txapela.

**Urteekin aunitz hobetu duzuela usate duzu?**

Zakurrekin batez ere bai. Arraza hobearrekin ibiltzen naiz, Gorbeia artzain zakurrekin. Lehenago hemengo arraza autoktonoa den zakur iletzuekin aritzen nintzen. Ez zen txarra baina oraingoa hobeki dominatzen dut.

**Nafarroako errekorra Patxi Etxeberria amaiurtarrak du, 15 txapelekin. Hori hobetzen ahaleginduko zara?**

Ez nabil hori buruan! Nabilen bitartean ahal dudana egiten saiatuko naiz.

**Nola moldatzen zara zakurrak hezitzeko?**

Nire gisara ikasi dut hezitzen, egunero lana eginez. Ardieta ia egunero ibiltzen naiz eta orduan ikasten da. Egunero lanari lehiaketetarako toke bat

**«Hiru-lau urte dituen dago zakurra bere onenean. Aurreneko urtea ikasten pasatzen dute eta lanerako gogoa haundia dute. Hiruzpalau urterekin ikasiak eta asentatuak izaten dira»**

ere ematen saiatzen naiz, zakurrak ohitu daitezten. Baina zakurrek berezkoa dute obediencia izateko ezaugarria, eta horrek ere badu eragina. Guk ikasten lagundu egiten diogu, baina obediencia izatea ez dago gure esku.

**Zakur bat noiz dago bere onenean?**

Adinari dagokionean, hiru-lau urte dituen. Aurreneko urtea ikasten pasatzen dute eta lanerako gogoa haundia izaten dute. Hiruzpalau urterekin ikasiak eta asentatuak izaten dira.

**Txapelketetan hiru proba puntuagarri izaten dira...**

Lehenengoa obediencia frogatzen da: markaturik dagoen ibilbidetik artaldearen kontrako zentzuan ibili behar du zakurrak. Bigarren, ardiak artzainaren ondora ekarri behar ditu eta hesi batek pasatu. Hirugarrenean ardiak ardite-

gian sartu eta atera behar dira. Hiruetan zailena banderekin markatutako bidea egitea da. Banderaren artean joan behar du zakurrak eta huts eginez gero, puntuak kentzen dituzte. Gainera, zakurrak ardiengana joan nahi izaten du, eta banderak kontrako aldean egoten dira. Hori da erakusten zailena.

**Egun arrunt batetik lehiaketa batera alde haundia dago?**

Bai. Zakurrak berak ni urduri nagoen ala ez nabaritzen du. Bera, ordea, urteekin asentatu egin da. Hasieran ezinez egoten zen, baina orain lasaitua ikusten zaio, ez da nerbioz jartzen.

**Nafarroako Txapelketa irabazita, orain Euskal Herriko Lehiaketan ordezkatu duzu Nafarroa...**

Hala da, baina han aurrenekoetan sailkatzea zaila da. Bigarren eta hirugarren askotan egin izan dut baina maila haundia dago, batez ere, Araba eta Bizkaia aldean. Lehen proban, obediencia deiturikoan, bandera bat edo bi huts eginez gero, txapelketatik kanpo gelditzen da. Huts egiten ez duten zakur batzuk dira eta dena perfektu egin behar da. Nire aldetik, ahal dudana egiten saiatuko naiz.



ARGAZKIAK: TTIPI-TTAPA

Ezkerretetik hasita, Jose Luis Etxabbarri Herri Lanetako Zuzendari Nagusia, Iñaki Goienetxe Igantziko alkatea, Laura Alba Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko kontseilaria, Koldo Erkizia Lesakako alkatea, Josu Iratzoki Berako alkatea eta Patxiku Irisarri Etxalarko alkatea. Argazkia Bastaundiko tunelean aurkitu duten mea-zuloan ateratakoa da.

# Bera-Behobia zatiarekin konparatuz atzeratua doa Igantzi-Bera tartea

Etxalar-Bera errepide zatiaren proiektuan aldaketak egon dira

*«Igantzi eta Bera zatiko lanak atzeratuagoak zihoazen. Denbora hori ez da berreskuratu baina obrak erritmo onean doaz eta N-121A errepideko lanak heldu den urteko ekainerako bukatuak egonen dira».* Hala adierazi zuen Laura Alba Nafarroako Gobernuko Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko kontseilariak irailaren 2an Etxalarren eskualdeko alkate eta zinegotziekin eta obrak egiten ari diren enpresekin egin zuen bilkuran. Kontua da hamar hilabete eskasetan egiteko aunitz dutela. 2009ko ekainerako bukatuak egonen direla adierazi arren, begibistakoa da oraindik nahiko airean daudela gauzak. Beran ezkerredera edo eskuinera hartu, lanen erritmoa desberdina da; Beratik Irunerako obrak aitzineratuagoak doaz. Hortaz, badirudi, kontseilariak aipatutako 10 hilabete horietan baino denbora luzeagoan iraunen dutela trafiko arazoek. Bertzalde, Etxalar-Bera zatian egin behar izan diren aldaketen berri ere eman zuen kontseilariak, «*beharrezkoak*» direla iritzita. Aldaketa horien artean daude Berako Matxain baserria bota eta etorkizuneko Bide Berdearen ibilbidea aldatzea. Tellegiko tunelaren sarrera ere itxi egingen dute.

## ttipi-ttapa

Nafarroako Gobernuaren esku dauden Nafarroa aldeko obrak hiru zatitan egiten ari dira: Igantzi-Etxalar, Etxalar-Bera eta Bera-Endarlatsa. Gipuzkoako zatiko lanez, berriz, Gipuzkoako Foru Aldundia ari da arduratzen. Laura Alba Herri Lan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak hilaren 2an obren segimendu batzordearekin egindako bilkuran erran zuenez, Nafarroa eta Gipuzkoako lanak «*antzeko erritmoan doaz*». Baina obrak ikusi bertzerik ez dago egoera zein den ikusteko.

Nafarroaren kasuan, Igantzi-Etxalar eta Etxalar-Bera zatiak 2009ko apirilera eginak izanen zirela iragarria zegoen, baina azkenean ezinezkoa izanen da. Eta Laura Alba kontseilariak heldu den urteko ekainerako obrak eginak egonen direla nabarmendu arren, agerikoa da atzerapena. Kontseilariak berak «*bi hilabeteko atze-*

*rapena*» onartu zuen, baina agian luzaragoan egon beharko dugu errepedeko obretan ilaran. Zati horretako obrak aldi baterako enpresa-eltarte (UTE) baten esku dago, eta bertze arrazioen artean, enpresa aldatetarako tarteko, atzeratu egin dira lanak. Hasiera batean, Ecay-Andueza SL, Indeconsa eta Obrascon Huarte Lain SAK osatu zuten UTEa. Baina lanean ari direnak ez dira hasieran hitzartutakoak. Enpresa horietako batek obra bertan behera utzi zuelako zurrumurrua zabaldua zen eskualdean. Eta hala izan zen. Izan ere, lurra mugitzeaz arduratzekoa zen Ecay-Andueza SL enpresak obra uztea erabaki zuen eta bere ordeaz, El Masa enpresa ari da lurra mugimenduekin.

Beratik aitzinerako lana, berriz, Mariezcurrena ari da egiten, baita Gipuzkoako zatikoak ere. Eta lan hauek bertze zatiarekin alderatuz, aitzinera-tuagoak doaz.

Bertetik, aipatu, kontseilariak segimendu batzordearekin egindako bileran, bertzeak bertze, Jose Luis Etxabarrri Herri Lanetako Zuzendari Nagusia, Jesus Gonzalez Albero Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Bide eta Eraikuntza Zerbitzuko zuzendaria, eta Bortziritako hainbat alkate eta zinegotzi izan zirela. Tartean Josu Irtzoki Berako alkatea, Patxiku Irisarri Etxalarkoa, Iñaki Goienetxe Igantzikoa eta Koldo Erkizia Lesakakoa. Guztiek elkarrekin obrak bisitatu zituzten.

## ETXALAR-BERA ERREPIDE ZATIA

Etxalarren hasi eta Berako saihesbidea hasten den lekuan bukatuko da zati hau, eta 21.214.728,11 euro kostako da. 3,720 kilometro izanen ditu eta bortz alditan gurutzatuko du Bidasoa, 158, 90, 120, 130 eta 172 metroko biaduktuekin. Horietan, 120 metro dituenak, Amisalbietako tunelaren hegoaldean dagoenak, habeak paratuak omen ditu eta taularekin ari omen dira lanean orain. Amisalbietako tunelean ere lanean hasiak dira. Hain zuzen, Etxalar-Bera zati honetan aldaketak egin behar izan ditu Gobernuak. Hasieran aurreikusitakoaren arabera, bideak Nabasturengo zentralaren inguruarri «zuzenean» eraginen lioke, eta horrek pareta bat egitera bultzatuko luke obra. Horrez gain, Gobernuaren hitzetan Lesakako sarbidearen malda «*haundiegia*» litzateke (%8koa) eta egin dituzten aldaketekin %4ra murriztuko dute malda. Kurbadura erradioa ere tikiagotuko da. «*Lesakatik ibilgailu astun aurriz pasatzen direlako, aldaketak beharrezkoak dira*», azaldu zuen Albak.

Horrek guztiak etorkizunean egin nahituen Bide Berdean aldaketak eraginen ditu. 400 metroko tartean lekuz aldatuko dute, eta Berara bidean, errepede berraren ezkerretik igaroko da, hau baino bi metro gehiagoko altueran. Malda tikiak izanen duela adierazi dute Gobernuak. Gisa berean, Telleriko tunelaren alde bat itxita geldituko da, baina badi irudi ez dutela botako. Matxain base-ria, ordea, botako dute.

## IGANTZI-ETXALAR ERREPIDE ZATIA

Errepide zati hau 65. kilometroan hasi eta Etxalarrera sartzeko bidean bukatuko da. 21.941.516,96 euroko aurrekontua izanen du. 4,150 kilometro luzera izanen du eta lau aldiz gurutzatuko du Bidasoa ibaia, 200, 110, 190 eta 105 metroko biaduktuen bidez. Bigarrena, dagoeneko bukatua dagoela adierazi zuen kontseilariak irailaren 2an, eta hala, Bastaundiko tuneleko lanak hasiak omen dituzte. Aipatzekoa da, tunel honetan lanean ari zirela, antzinako mea-zuloa topatu dutela, XX. mende hasierakoa. Etxabarrik argitu zuenez, toki horretan azterketa geofisiokoak egiten ari dira, galeriak detektatzeko. Gainerako zatian, egin beharrekoaren «*zati haundi bat*» eginga dagoela aipatu zuen Herri Lanetako Zuzendari Nagusiak.

## BERA-ENDARLATSIA

Zati honek 2,533 kilometroko luzera izanen du, eta 15.864.671,10 eurotan esleitu dira lanak. Proiektuaren arabera, bi biaduktu izanen ditu, 230 eta 196 metrokoak. Lur mugimenduen aitzineratu samarrak daudela aipatu zuen kontseilariak, biaduktuen inguru horretan izan ezik. Hain zuzen, biaduktu horietako baten habeak irailaren 5etik 6rako arratsean paratu zituzten.



N-121Ako langileak Endarlatsako zubia baino lehen, Bera aldera dagoen zatian lanean. Zubi baten zutabea joanen da gainean.

Lege Gordailua: NA-1324/85  
ISSN: 1578-4673  
Frankeo Itundua: 34/79  
TIRADA: 6.000

**ttipi-ttapa aldizkaria**

Andutzeta, 12  
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)  
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58  
Faxa: (+34) 948 63 54 57  
[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)  
[info@ttipi.net](mailto:info@ttipi.net)

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa.

**Presidentea:** Pello Apezetxea.

**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.

**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.

**Publizitatea:** Kulturkari, SLU.

**Administrazioa:** Amaia Goia.

**Erredakzioa:** Gurutze Pikabea.

**Berriemaileak:** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Altzuri, Oskar Txopereña, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorenna, Aitor Arotzena, Amaia Odrizola, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarteak...

**Imprimategia:** Gertu.

**Erakunde laguntzaileak:** Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

**2008ko harpidetza sariak:**

Hego Euskal Herria	34 €
Espainia	34 €
Sara (La Poste)	52 €
Ipar Euskal Herria	52 €
Europa	52 €
Amerika eta Australia	115 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza	27 €



**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jas du**



**Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jas du**

## IRAKURLEAK MINTZO

### Bi txori tiro batekin

Aurten ere hor eondu zian Aurora kantatzen (hobeki esanda hor eondu giñan, ni ere hor bainengon hamar bat nobatokin). Lehengo urten 50, aurten 60, txurigorri jantzik eta ingurrun hainbeste herritar eta kanpotar gurekin kantatzen. Egun ederra pasatu giñun, goizeko 7etan hasi eta eguerdin plazan bukatu arte, han Imanol, Ainara eta Iga zuzendariri egiten duten lanagatik oparik eman ez. Ederki bazkaldu eta kafea hartu ondoren, kantatu eta kantatu bukatu giñun eguna. Urte guzín entsaiotara jotzen zutenaren eskerrik asko gonbidatzeagatik (eta zorionak ere bai). Nik azkeneko egun hoietan ikusi duanez, giro ederra sortua dakazute. Zuek segi hortan!

Dantzariri buruz ere esan ikaragarria izandu zela Amabirjinatako ikuskizuna. A ze sor-

presa! Eta hau ez dut nik bakarrik esaten, nere ingurrun eta herrin ere besteik ez dut sumatzen. Zueri ere Zorionak eta nola ez zuen irakasleri: Elena, Unai, Ibon, Itxaso...

Datorren urten ea zein zorientzen ttuan: korua, dantzarik eta...

**Mari Karmen Goizueta**

### OHARRA

Eskutitz guztiakin batera, idatzi duenaren izen-deiturak eta telefonoa bidali behar dira. **Bertzela, ez dira argitaratuko.** Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea. Laburtu beharra izanez gero, **Ttipi-Ttapak** bere esku izanen du horretarako eskubidea.

## PRENTSATIK BILDUTAKOAK



DARIO DE NOTICIAS, 2008-09-07

«Kontent nago, laino batean. Irabazteko perfektu jokatu beharko nuela banekien. Partidaren lehen zatia oso gogorra izan da. Bera nahiko indartsu ikusten nuen, baina momenturo nire gaitasunetan sinistu dut. Sakearekin ez nuen asmatzen baina guztienez markagailua mantendu dut. 20. tantotik aurrera hobeki sakatzen hasi naiz eta abantaila haundia hartu dut (...) Saria urteetako lanaren emaitza da eta orain disfrutatzea tokatzen da».

**Migel Mari URRUTIA**  
Saldiasako erremontista  
D. Noticias, 2008-09-07

«Irakasle batek beti erraten zigun sexualitatearen hiru zutabe nagusiak sexua, erotika eta xamurtasuna direla, eta nik ere hala uste dut; xamurtasunik gabe nik behintzat ezingo bainuke sexualitatea bizi, ezta bizitza bera ere (...) Uste dut pertsona bakoitzari gauza desberdinek eragiten diotela xamurtasuna (...). Adibidez, lagun batekin bokata jaten ari zarenean, eta, 'jo zein ongi nagoen, aski gutti duk, ba!' pentsatzean, orduan sentitzen duzun zirrara hori da benetako xamurtasuna!».

**Estitxu FERNANDEZ**  
Lesakako kazetaria  
Berria, 2008-09-07

**TOLDOS BAZTAN, S.L.**

TOLDOAK: salmenta-konponketa, alokairua, errotulazioa  
MOSKITERAK-PERTSIANAK motorizatuak-veneziarrak  
PVCzko LEIHO eta ITXITURAK

**TOLDO IA BERRIEN ESKAINTZA**  
Teillaturako, egurrak tapatzeko...  
Neurriak: 10x10 m • 10x14m • 8x7m • 5x6'7m

Bidasoa, 66 behea • BERA • Tfnoa eta Faxa: 948 631003

PERSIANAS TOLDOS BAZTAN

**Kimetz Belardenda**

Uztailaren 14tik aitzinera irekia

**BELARRA JANTZERAK**

DONEZTEBE • 948 450 306

**ANTZUZELA, S.L.**

Tel: 948 631 317

**HARRI NATURALA**

Ateratzea eta Lontzea

Antzuzeladek	Tximiniak
Angeluek	Erlojeak
Orre elintzinek	Maldurak
Leihuek	Zakalok
Ateak	Hilerrak
Arkuak	Marrakizak
Pilareak	

Ahojardoen-Mazizoen Zaber antzeko-Isapetan

**ZINTARRIAK ADOKINAK ZOLAK**

Irungo errepidea BERA



# HAUR

# TXOKOA

HAURREI DENBORA LIBRE JOSTAGARRIA;  
GURASOEI MESEDE



**IGANTZI**

asteleheneretan, 16:30-18:00;  
asteazkenetan, 14:30-16:00

**ARANTZA**

astearte eta  
ortziraletan,  
16:00-17:30

**ETXALAR**

asteazkenetan,  
14:30-16:00;  
ortzegunetan, 16:30-18:00

**URRIAREN  
1ETIK  
ABENDUAREN  
22RA ARTE**

## Zer da haur txokoa edo ludoteka?

Haur Txokoa da hurrek beren denbora librean kulturarekin eta harreman afektiboekin jostatzen eta gozaten ikasteko gune bat, solidaritatean eta berdintasunean oinarritzen dena. Bideanabar, zerbitzu honen bitartez, gurasoei aukera bat ematen diegu seme-alaben heziketa bateratu ahal izateko euren lanarekin edota denbora librearekin.

Bortzirietako haur txokoan koedukazioan ikasteko eta elkartzeko gune bat izan nahi du, eta bertan parte hartuko dutenak bultzatu nahi ditu, balore solidarioak praktikan jartzeaz gainera, errespetuaren eta elkar laguntzaren garrantziak gogoeta egitera.

Izen ematea: 948 635 036 telefonora deituta,  
9:00etatik 12:30era,  
edo [ssblesaka@infocal.org](mailto:ssblesaka@infocal.org) helbidera idatzita.  
Epea: Irailaren 22tik 26ra

Kuota: 20€  
anai-arreba bakoitzeko 10€ gehiago  
Plaza mugatuak



## IKASTAROK

# Enpresa bat sortu eta bideragarria izateko tailerrak eskainiko ditu Cederna-Garalurrek

Urriaren 7tik aitzinera emanen dira Lesakako Alkaiaga auzoko Cedernaren egoitzan

## ttipi-ttapa

Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren ekimenez, norbere enpresa sortu eta bideragarria izan dadin laguntzeko tailerrak eskainiko ditu Cederna-Garalur Elkarteak. Hiru ikastaro emanen dira, eta independenteak badira ere, enpresa bat martxan paratzeko pauso guztiak biltzen dituzte hiruren artean. Dohainik izanen dira, Enplegu Zerbitzuak finantzatuak, eta enpresa munduan interesa duten guztiarentzat irekiak dira. Cederna-Garalur Elkarteak Lesakako Alkaiaga industrialdean duen egoitzan emanen dira. Bigarren eta hirugarren tailerrak emanen dituen Beatriz Chagoyen Cedernako teknikariak azaldu digunez, «*autoenplegua sustatu eta enpresa finkatzea da helburua*» eta material guztia Cedernak bideratuko du.

## 'ZURE ENPRESA SORTU NAHI DUZU?'

Izen horixe du lehen tailerrak. Bi zatitan banatu dute: «*Lehenengo pausua negozio-idea sortzea edo zehaztea da. Horretarako sormena landuko da, alde batetik, tekniken ezagutza eta bertetik, inguruareneza-*



ARGAZKIA: CEDERNA-GARALUR

Alkaiagan eskainiko diren tailer hauek Arbizun ere egin izan dira.

*gutza*». Hala adierazi digu Beatriz Chagoyenek. Bigarren pausua, behin ideia zehaztuta, negozio bat martxan jartzeko eta arrakasta izateko behar diren gaitasunak lantzean datza. Landuko dituzten jokabideen artean hauek daude: autokonfidantza (autoestima eta internalitatea), inizatiba, helburuak finkatu, persuasioa eta laguntza sareak, efizientzia, helburua lortzeko orientazioa eta iraunkortasuna, planifikazioa, kalitatea eta berrikuntza eta informazioaren bilaketa.

Negozio-idea bilatzen lagunduko dute lehen fasea 12 orduko ikastaroa

izanen da eta urriaren 7tik 9ra eskainiko da, 9:30etik 13:30era.

Bigarren zatian, proiektu berri bat ekiteko gaitasun pertsonalak landuko dira. 16 ordukoa izanen da, eta urriaren 13tik 16ra emanen da, 9:30etik 13:00etara.

## 'ONGI EZAGUTZEN AL DUZU ABIAN JARRI NAHI DUZUN ENPRESA?'

Lelo horrekin eskainiko da bigarren tailerra. Honetan enpresa bideragarria izateko zer hartu behar den kontuan azalduko dute. «*Ingurua aztertu behar da horretarako, hornitzaileak, konpetentzia, bezeroak...*

*zenbakiak ere aztertuko dira*», azaldu digu Chagoyenek. Gaineratu digunez, «*interesatuak negozio-idea buruan dutela etortzea litzateke onena*». «*Tailer interesgarria eta praktikoa izanen da, bildutakoen artean eztabaidak sortu eta ideia lagungarriak sortuko direlako*». Berteak berte, hastapenean izaten diren ohiko akatsak erelاندuko dituzte. Ohiko akats horiek zein diren azaldu digu Cedernakoak: «*finantza arloan sortzen dira batez ere. Negozioa martxan paratzerakoan hainbat arlo kontuan hartu ez, eta aunitzetan enpresa batzuk langileei*

*ezin ordainduz dabilta*».

Ikastaro hau urriaren 23an, 24an, 30ean eta 31n emanen da, 14 orduz. 9:30etik 13:00etara izanen da.

## 'NEGOZIO TTIKIAREN KUDEAKETA'

Enpresa abian jarri duten edo laster abiatuko dutenei bideratua dago hirugarren tailer hau. Negozioaren kontabilitatea informatikako programa batekin nola eraman daitekeen erakutsiko dute.

«*Tresna sinplea eta praktikoa da. Sinplea kontabilitatea jakitea ez delako nahitaezkoa, eta praktikoa urratsez urrats zer egin behar den azalduko dugulako*», adierazi digu Chagoyenek.

Ikastaro hau aitzinekoaren egun berdinetan emanen dira, baina arratsaldez: 14:00etatik 16:00etara. Zortzi orduko iraupena izanen du.

## IZEN EMATEA

Interesatuak telefonoz eman beharko dute izena, 948 625 122ra deituta. Lehen tailerlean parte hartzeko urriaren 3a baino lehen eman behar da izena; eta bigarren eta hirugarrenean parte hartzeko urriaren 20a baino lehen.

Tel: 948 634 179  
ARANTZA  
**ATERPE**  
ALBERGIA  
ALBERGIA · JATETXEA

**TAILERRAK**  
**ALMANDOZ**  
• Mekanika • Karrozeria • Ibilgailuak  
• Elektrizitatea • Kamioiak • Furgoneta - 4x4  
Faxa: 948 625 171 • Mug.: 679 892 032  
Banarta, 18 • Alkaiaga Ind. • LESAKA

MERTZERIA  
*Deñe*  
LENTZERIA  
Tel: 948 627 514  
Beheko Plaza, 10 • LESAKA



**BERA**

## Gure Txokoa Elkar-teak antolatuta, larunbat honetan egingen da XIV. Dantzari Ttiki Eguna

Herri ezberdinetako dantzariak Jamotenean elkartuko dira 10:30etik aitzinera

**ttipi-ttapa**

Larunbat honetan, irailak 20, egingen da Dantzari Ttiki Egunaren XIV. edizioa. Urtero bezala, Gure Txokoa Elkar-teak goizetik hasita ekitaldiak antolatu ditu.

10:30ean herri ezberdinetako dantza taldeak Jamotenean elkartuko dira, eta auzoz auzo dantzatzeko taldetan banatuko dira. 11:00etan kalejira egingen dute eta bidean gosaria ere edukiko dute. 12:45ean talde guztiak berriro Jamotenean bilduko dira eta elkarrekin Altxate aldera abiatuko dira. Eguraldi ona egiten badu, Altxateko Plazan herriko dantzariak Agurra eskainiko diote kanpoko haurrei eta segidan denek elkarrekin Agintariena dantzatuko dute. Ondotik, talde bakoitzak dantza bat eskainiko du. Eguraldi txarra egiten badu, berriz, Ricardo Baroja ikastetxe frontoian egingen dute dantza saioa.

Dantzariak etxe desberdinetara joanen dira bazkaltzera eta arduradunek Jamotenean egi-

nen dute otordua. Arratsaldean, 17:00etan elkartu eta ordu erdi beranduago haurrentzako jokoak izanen dituzte.

**Mendi Bizikleta Ibilaldia**

Gure Txokoa Elkar-teak antolatuta, irailaren 28an, igandea, egingen da Mendi Bizikleta Ibilaldiaren XVI. edizioa. Luzera desberdineko hiru ibilbide prestatu dituzte: 28 kilometrokoa, 18koa eta ttikiagoa. Ibilaldiak 10:00etan abiatuko dira eta izen ematea egun berean egin beharko da, 8:30etik aitzinera. Ibilbide luzea aukeratzan dutenek 10 euro ordaindu beharko dituzte, ertaina aukeratzan dutenek 8 euro eta ttikiena egingen dutenek 5 euro. Ibilbide guztiak Matxada futbol-zelaitik abiatuko dira.

Ibilbide luzea Matxadatik Sarraiara joanen da eta Zamarneko-borda, Uxane, Gorria, Usategieta, Landagaita, Lizuniaga, tiro-eremua, eta Ardanbiden barna pasatu ondotik fut-



ARGAZKIA: JOSEMARI TELLETXEA

**Patxi Iratzoki igantziarra nagusi Agerrako kro-sean**

140 lagun lasterkarik hartu zuten parte abuztuaren 30ean jokatu zen Agerrako kro-sean. Auzoko besten barne egin zen lasterketa, Luis Mari Apeztegia Memorialaren XXVII. edizioa. Korrikalari gehienak Manttale taldekoak izan ziren eta denborarik onenak ere eurek egin zituzten. Gizonezkoen maila nagusian, Patxi Iratzoki igantziarrak irabazi zuen; Unai Santamaria bigarren gelditu zen eta Iñigo Lasaga hirugarren. Emakumezkoetan, berriz, Lorea Agirre izan zen garaile eta Idoia Esnaola bigarren. Beteranoetan Joxelu Loiar-tek irabazi zuen gizonetan, eta Rosa Orofinok emakumezkoetan. Gazteetan, Naiara Trigeros eta Gorka Tolosa izan ziren txapeldunak, nesketan eta mutiletan, hurrenez hurren. Infantiletan, azkenik, Ane Eltzaurdia gailendu zen nesketan eta Beñat Mitxelena mutiletan. Sari banaketan antolatzaileek Luis Bru omendu zuten, herrian atletismoaren alde egindako lanagatik eta batez ere, Agerra auzoan egindakoa eskertzeko. Argazkian gizonezkoen maila nagusiko lehen hiru sailkatuak eta emakumezkoen mailan nagusian garaile atera zena ageri dira.

bol-zelaira bueltatuko dira berriz.

Bide ertaina egin behar dutenek hasiera luzearen antzekoa izanen dute, baina Usategiata-tik herrira itzuliko dira.

Ttikienak Postasetik herrira itzuliko dira. Aipatu, parte hartzen dutenen artean bi bizikleta zozketatuko direla.

**Ikastetxe pribatu-entzako laguntza**

Nafarroako Gober-nuko Hezkuntza De-partamentuak eskolaz kanpoko ekintzak eta bertzelako osagarriak

antolatzeko dirulagun-tza emanen die Nafarroako ikastetxe pribatuei. Horien artean dau-de Labiaga Ikastola eta Jesusen Bihotza. Ikas-tolak 706,55 euroko dirulaguntza jasoko du eta Jesusen Bihotza Ikas-tetxeak, berriz, 552,20 eurokoa.

**Larunerako pista konpontzeko eskaera**

Larungo bentako lan-gileek eskaera argia lu-zatu diote Nafarroako Gobernuari: «*kaxkora doan bidea konpontzen laguntzeko*». Herritik La-

rungo kaskora joateko bidea «*arriskutsua*» de-la diote eta behin bai-no gehiagotan ezbeha-rrak gertatu direla—zen-baitetan hildakoak ere bai tartean—. 40 bat la-gunek egiten dute gaur egun Larunen lan, eta bidearen egoerarekin kezkatuta, Gobernuari zerbait egiteko eskatu diote. Larungo kaxkoa ez dagokio Nafarroari bakarrik, Iparraldeak ere bere zatia baitu. Baina bentetako langileen hi-tzetan, zergak Nafarroa-ko ordaintzen dituzte eta Nafarroako Gobernuak du laguntzeko ardura.

**Alberto RETEGI**  
abokatu  
abokatu  
© 948 630 763 · Altxate, 17 · BERA

**LABEZAR**  
Tel: 948 631 076 · BERA

**BAR Botxo OSTATUA**  
Zalain · BERA · 948 630 052

**JAZONE-GOZOTEGIA**  
Altxate, 19 · BERA · 948630786

## LESAKA

# Alkaiagako asfalto lantegiari alegazioak jartzeko epea zabalik

Irailaren 25era arte egiten ahal dira udal bulegoetan

Aitor AROTZENA

Excavaciones Orsa S.L. lantegiak Alkaiaga auzoan egin gogo duen asfalto lantegiak kalte-tutakoek irailaren 25a arte izanen dute alegazioak aurkezteko epea. Proiektu honek Alkaiagako eta Berako Agera auzoko bizilagunen kezka eta haserrea piztu zuen eta orain, Onin eta Eako udal taldeek ere «arront kontrako jarri» dutela adierazi du Deñe Abuin zinegotziak. Lantegia etxebizitzetatik hurbil gelditzen dela eta bizilagunei laguntza eskaintzea da honen arrazoi nagusia, baina gehiago ere badira. Lurren jabegoaren afera ahortzi gabe, «lizentzia Juan Fermin Mitxelenak eman zuen, jarduerako alkate zenean, hauteskunde ondotik udal berria osatu baino lehen eta ez zaigu egokia iruditzen», Abuinaren erranetan. Gainera, lizentzia hori lantegia lekuz aldatzeko eman zen eta orain, «tresneria guziaz aldatu eta produkzioa bikoiztuko duen lantegi berria paratu nahi dute». Alkaiagarrek ez zik proiektuarekin kezkatua dagoen edonork aurkez ditzake alegazioak.



ARGAZKIA: JUANJO GUERRERO

## Jesus Senosiain omendu zuten Batzoki elkartearen Emakumeen IV. Futbol Sarietako

Beti Gazteko emakumeen taldeko lehenbiziko entrenatzaile izan zen Jesus Senosiaini omenaldia eskaini zitzaion Batzoki elkarteak laugarren aldiz antolatutako Emakumeen Futbol Sariaren aitzaian. Antolatzaileek eta parte hartu zuten hiru taldeek, Irungo Mariño, Barañaingo Lagunak eta Bilboko Athletickek opariak eman zizkieten Senosiainen alargunari eta semeari eta minutuko isilunea egin zen. Txapelketa Mariño irabazi zuen, iaz bezala.

## Burniaren Zentroa eta Turismo Bulegoa irekiko dira konbentuan

Konbentuko moldaketa lanean ari dira aspaldi eta Turismo Bulegoa ez zik Burniaren Zentroa ere beheitiko solairuan kokatuko dira urritik aitzinera. Teilatua berritu dute, bobedak moldatu eta paretak margotzeaz gain, aitzina-

naldeko harrien tarteak zigitatuko dira, urik ez sartzeko. Lanen aurrekontua 140.000 eurokoa da eta Cedernak 36.000 euroko laguntza eman du. Horretaz gain, Nafarroako Kutxako Zeuk aukeratzen duzu, zeuk erabakitzen duzu

egitasmotik eta Turismo Departamentutik ere laguntza eskuratuko da.

Pedro Lanz arotzak bere lanak utziko ditu Burniaren Zentroan, Udalarekin sinatuko duen hitzarmen baten bidez, eta dokumentala ere grabatu nahi da.

## FLASH

### Mendi bizikleta ibilaldia igandean

Igande honetan, irailaren 21ean, Beti Gazteko antolatutako mendi bizikleta ibilaldia egingen da. Parte-hartzaileek bi ibilbide izanen dituzte aukeran, 25 eta 35 kilometrokoak. Irteera 10:00etan izanen da eta 8:00etatik izen emateko modua izanen da. 10 euro ordaindu beharko da (Beti Gazteko bazkideek 8) eta jandatekoak izanen dira ibilbidean eta pintxoak proba akautzean.

### Guraso Eskola

Irailaren 9 eta 16koen ondotik, hurrengo bi saioak hilaren 23an eta 30ean izanen dira, 10:00etatik 12:00etara, Antoiu 27ko egoitzan. Ekitaldia herriko guraso guzietatik zabaldu dago.

### The Cheese Poofs taldearen estreinaldia irailaren 20an

Bezperan Jabier Mugaruzak eskainiko duen kontzerturako Onin errega gainean paratuko den tablatur probetuz, bere lehen emanaldia eskainiko du larunbatean The Cheese Poofs taldeak. Lesaka, Igantzi eta Irungo musikariek osatzen dute taldea.

**IRU BIDE**  
Erregegia - Asador  
Birrana, 3 - Lesaka  
Tel: 948 637 127

**GOJZ-ALDE**  
JANARDENDA  
Bittira 41 • 948 637538 • LESAKA

**XATURETXEA**  
JATETXEA  
T. 948 637 260 • LESAKA

**ZUBIONDO**  
Jatetxea  
sagardotegia jatetxea  
Alasta karrika  
BERA NAFARROA  
Tel: 948 625 474

## ETXALAR

### Berrikuntza aunitzekin hasi dute ikasturtea Landagain Eskolan

Eraikin berria estreinatu dute ikasleek, 3 solairu eta 10 gelek

#### Joseba eta Nerea

Gauza on guziak akabatzen dira, eta udako oporrak disfrutatzeko aukera izan dutenei ailegatu zaie berriz ere lanean edota ikasten hasteko tenorea. Landagain Eskolako haurrek irailaren 10ean agurtu zuten udako oporraldia eta berriz ere klaseetako martxa hartu zuten, batzuk pe-reza handiarekin, baina gehientsuenak ilusioz eta gozoz.

Aurten gainera, berrikuntza frankorekin hasi dute ikasturtea. Azkeneko urteetan zuzendaritzan den Joxe Mari Remiroren partez, Junkal Alzuguren etxalartarra izanen da zuzendaria. Remiro Bortziritako eskoletan koordinatzaile lanetan ariko da aurten.

#### INOIZ BAINO HAUR HASIBERRI GEHIAGO

Aspaldiko urtetan ez zen hain kinta handirik sartu. 3 urteko 12 haurrek hasi dute ikasturtea: Aimar Aginagaldek, Kamen Antsalasek, Izar Azkarragak, Aitor España, Xuban Gastearrenak, Eider Indaburuk, Mikel Iturriak, Iraia Izagirrek, Sandra Muñozek, Aitzol Pinok, Ane Telletxeak eta Eneko Zubietak. Guztira 64 haur ditu eskolak.

#### ERAIKIN BERRIA MARTXAN

Ikasturtea hastearrekin batera, eraikin berria estreinatu dute haurrek. Hainbat hilabeteko obralari ondotik, kasik guztiz osatua dago hiru solairu eta 10 gela dituen eraikina. Bertzeak ber-



ARGAZKIA: TTPI-TTAPA

Eskolako irakasle eta ikasleak ikasturte berriko hasierako egunetan.

tze, gorputz heziketarako aretoa, bikoizketarako gela, ingelesa emateko gela, informatika gela eta liburutegi eder bat daude eraikinean.

#### Urritzokietako bestak

Joan den igandean, irailak 14, ospatu ziren aurtengo Urritzokietako bestak. Urteen joanean, herriko auzo bakarretakoak da oraindik bestak egiten segitzen dituenak, eta bakarra da auzo-bazkariak gain hainbat ekitaldi eta joko antolatzen dituenak.

11:30ean Santa Krutz ermitan egin zen Meza Nagusiarekin hasi zuten urritzitarrek eguna. Ondotik, hamaiketako egin zen ermita kanpoaldean eta Irune eta Itxaso trikitalariak alaitu zituzten bazterrak. Auzo auzo ibili ziren trikitalariak eguerdira arte. 14:00etan asaua egin zen Sainduneko Zubian. 70 lagunetik goiti elkartu ziren giro onean bazkalduta eta solasean aritzera. Bazkaldondotik, mus txapelketa egin zen eta azken urtetako ohiturari segituz, IV. herrikirol desafioan aritu ziren au-

zotarrak, emakumezkoak gizonezkoen kontra: zaku-lasterketan, koxkor-biltzen, zartagia botatzen eta arraultza egosiak kutxarekin batetik bertze-ramaten... Ondotik, irabazleei sariak banatu zitzaizkien. 18:00etan dantzaldia egin zen Irune eta Itxaso auzotarren doinuekin eta arratsean afariarekin eman zioten akabera beste. Antolatzaileak gustura daude egunak izandako martxarekin, urteik urtera giro hobean eta ekitaldi gehiagorekin ospatzen baitituzte bestak.



DENA:



## LESAKAN OINETAKOEN MERKATUA

IRAILAREN 20an 10:00/20:00  
eguerdian itxi gabe

## ARANTZA

# Sei ikasle berrik hasi dute ikasturtea eskolan

Guztira 46 ikasle dira eta bi irakasle berri

## Nerea ALTZURI

Ikasturte berria hasi da herriko eskolan. Hila-bete honetan goizez bakarrik dute eskola, beraz, hasteko urtero bezala pixkanaka barnerratu dira ikastaldi aroan.

Guztira 46 ikasle hasi dira. Horien artean sei ikasle eta bi irakasle berri daude. Hiru urteko bortz ikasle sartu dira Haur Hezkuntzan: Suhari eta Oskitz Madariaga, Gaizka Zulaika, Marta Zabala eta Irati Azpirotz. Lehen Hezkuntzako bigarren mailan, berriz, Jon Zabala hasi da. Gainerakoan, herriko eskola utzi eta Berako Toki-Ona Institutura joan direnak Markel Jorajuria, Lidia Indakoetxea eta Silvia Telletxea dira. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako (DBH) hirugarren maila egiten hasi dira.

Irakasle berriak Nerea Meoki eta Ainara Mutuberria dira. Lehen Haur Hezkuntzako arduraduna izanen da, eta DBHkoa bigarrena.

## Udal informazioa

Abuztu hasieran Udalak etxeetara bidalitako udal informazioaren txostenean erreparatuko dugu orain. Informazio auzi hartzeko, egin beharrik eta egin diren egitasmo nola lanei buruzko xehetasunekin. Aldi honetan, honako puntu hauek agertzen dira, berteak berte:

### ETXEBIZITZA BEHARRAK

Babes Ofizialeko Etxebizitzak direla-eta, ikerketa bat egiteko beharra somatu dutela jakinarazi da Udaletik. Mota honetako etxebizitza izateko nor egonen litzatekeen interesaturik jakin nahi du. Hasiera batean, informazio hori orientazio moduan erabiliko du Udalak. Beraz, interesatuek izena eman dezakete hilaren 30a baino lehen.

### UDALETXEA

Urte hasieran Udalaren diagnosis eta pla-



ARGAZKIA: JOSE RAMON AMOROS

## Udako oporraldiaren ondotik eskolara itzuli dira berriz neska-mutikoak.

nifikazioa egiteko dirulaguntza eskaera egin zen Nafarroako Gobernu Toki Administrazio Departamentura. Bada, eskaera onartu eta 6.500 euroko subentzia jaso zuen Udalak. Lan horren helburua udaletxearen barne funtzionamenduen gaineko diagnosis egitea da, baliabide ekonomikoak, pertsonalak eta abar zenbatuz, eta hori kontuan hartuz, hurrengo urteetako planifikazioa egin nahi da. Urtea akautzerako txostena jasoko dute udaletxean eta horren berri herritarrei emanen zaie.

### UR DEPOSITUA

Legealdia hasieran, Udalak zenbait gabezia ikusi zituen depositu berria eta erreklamazio formala egin zitzaion lanak

egindako enpresari nola proiektu egileari. Hila-bete hauetan hainbat lan egin behar izan dira:

- Ur depositu berria bakarrik erabili, depositu zaharrera pasoa itxiz.

- Herriko ur sarean sortu diren matxuren moldaketa egin da eta sarea nahikoa zaharra denez, moldaketa gehiago ere beharrezkoak izanen dira, Udalaren ustez.

- Uraren erreguladore berria paratu da presioa guttitzeko, ura nahaste-ko bonba berria jarri da eta abar.

Edozer informazio udaletxean eskura daiteke. Lan gehiago eginenez gero, horren berri emanen da aitzinerago.

### BATZORDE PARITORIOA

Uztailean duela bortz urtetik honat bildu ez den

ehiztarien eta udal ordezkarien arteko batzordea elkartu zen eta ordezkariak izendatu ziren: Udaletxetik Ainara Maia, Ainara Amoros, Jaime Iturria eta Jabier Taberna; eta Ehiza Elkartetik Xabier Zugarmurdi, Lorenzo Larretxea, Patxi Lukanbio eta Jokin Madariaga.

## Zahar Txokori dirulaguntza

Aurtengo eginbeharrarako edo ekitaldiertarako erretiratu elkarrekin dirulaguntzak banatu ditu Nafarroako Gobernu Giza Gaiak, Familia, Gaztedia eta Kirol Departamentuak. Arantzara ere ailegatu da, eta Zahar Txoko Elkarrekin 4.591,37 euroko subentzia hartu du.


## ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopanak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarrtasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESACA: Bittiria, 71-behea · Tel: 948 637 050 · Faxa: 948 637 050  
BURLATA: La Viña, 4 · Tel: 948 133 328 · Faxa: 948 133 713



Aupa familia! Bakazioak ongi pasatzeko pasatzeko doaz. Ondartzan ere ongi nahiz. En fin, bero aundia eiten du. Masajista bat ezautut. Ejem. Igual enaiz bueltauko. Musu bat.

Hori da! Beste bat alfabetatze ikastarorako. Euskaltegia bete egingo dugu erritmo honetan... kar, kar!

Alfabetatu, brother!

...euskaltegira ganen nahiz ongi eskribitzen ikastera!

Ongi etorri! Gustura ibili zara oporretan?

Adiskide, patxada ederrean ibili ondotik...

...indarrez gainezka eta asmo berriei ekiteko gogotsu egonen zara, ez?

Bada orain ailegatu da zure

**EUSKARA MAILA  
HOBETZEKO ETA  
EUSKARAZ ONGI IDAZTEN  
IKASTEKO TENOREA.**



Izena eman euskaltegian!



Baztan  
AEK - Suinki Euskaltegia  
948 452 471

Bortziriak  
IKA  
948 637 796

Malerreka  
IKA  
948 451 555

**ZATOK EUSKALTEGIRA!**

**Eskaintza zabala maila guztietan.**

Eman postal hau inguruko norbaiti!!  
Anima ezazu bere euskara maila hobe dezan!!

## SUNBILLA

# 52 ikaslek eman diote hasiera aurtengo ikasturteari

Zazpi ikasle berri sartu dira: bortz hiru urteko eta bi lau urteko

## Jaione OTXANDORENA

Inguruko bertze herri aunitzetan bezala Sunbillan ere irailaren 8an eman zitzaion hasiera aurtengo ikasturteari. 52 ikasle izanen dira 2008/2009 ikasturtean: Beheko Eskolan 23 ikasle izanen dira, bi gelatan banatuak eta Goiko Eskolan 29 ikasle, hauek hiru gelatan banatuak.

Zazpi ikasle berri hasi dira aurten eskolan. Hiru urtekoak Jone Gorria, Aimar Migeltorena, Eneit Bertiz, Helene Rearte eta Iñaki Arriaga dira. Baina horiez gain, lau urteko bertze bi ere sartu dira: Unai Ruiz eta Sarai Bazterrika.

52 ikasle horientzat zortzi irakasle daude gure eskoletan eta erlijioa ematen duen irakasleak bertze herri batzuetan



ARGAZKIAK: JAIONE OTXANDORENA

Eskolan hasi diren hiru urtekoak: Jone, Aimar, Eneit, Helene eta Iñaki.

ere klaseak emanen ditu. Ikasturtearekin batera eskolako jangela ere martxan jarri zen egun berean. Aurtengoan 20 haur finko izanen dira, joan den urtean baino bortz gehiago. Bertze urte batez Rakel Urtxegi izanen da sukaldaria eta

aurten Koro Zelaieta sartu da laguntzaile moduan.

### Trikitixa eta pandereta ikastaroak

Urte sasoi honetan bertze zenbait ikastarori ere hasiera ematen

zaio. Urritik ekainera arte trikitixa eta pandereta klaseak emanen ditu Mendaur Trikitixa Eskolak (Ainara Mindegia) gure herrian. Izena emateko epea irailaren 19an akituko da honako telefono zenbaki honetan: 646 298568.

### Ehiza sasoiaren hasiera bikaina

Ehiztari guztiak irailaren 4aren zain zeuden, egun horretan hasi baitzuten aurtengo ehiza denboraldia. Hasiera ona izan zutela aipatu behar da, lehen egunean bi basurde hiltzea lortu baitzuten. Orain hasi eta datorren otsailera bitarte izanen dute nahikoa gozatzeko aukera.

### Aio igerilekuari

Ekainaren 15tik irailaren 15 a arte udal igerilekuaz gozatzeko aukera izan dugu. Herriko nahiz kanpoko jende dexente ibili da, eguraldiak lagundu duen egunetan behinik behin. Orain, datorren ekainera arte, udarari bezala, igerilekuari ere aio erratea bertzerik ez zaigu gelditzen.

Aukera ezazu **ttipi-ttapa** laguntzeko proiektua  
can **NAFARROAKO AURREZKI KUTXA**ren

Zeuk aukeratzen duzu,  
zeuk erabakitzen duzu

Proiektu zka.: 14640

**APARAN, S.A.**  
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080  
Fax: 948 450 334  
**DONEZTEBE**



**Martiko**  
Pol Zalain, s/n.  
31780 Bera. Nafarroa  
Tel: 948 625016 Fax: 948 625036  
www.martiko.com

*Ahatekietan adituak eta arituak*



Martikorekin  
zu zeu  
sukaldari.

**DENDA**  
ORDUTEGIA  
ASTELEHENETIK  
ORTZIRALERA

8.30etik  
12.30era

14.30etik  
17.00etara

## ITUREN

# Udal hautetsien aurtengo ordainsariak onetsi ditu Udalbatzak

Alkateak urtean 6.900 euro jasoko ditu eta zinegotziek, berriz, 1.260 euro

### Arkaitz MINDEGIA

Ekainaren 25ean egindako osoko bilkuran, Udalak hautetsien ordainsaria zenbatekoa izanen den onetsi zuen.

Alde batetik, alkateak urtean 6.900 euro jasoko ditu Herriko Etxera joateagatik eta osoko bilkuretan, organo kolegiatuen bilkuretan eta bilkeretan parte hartzeagatik.

Zinegotziek, berriz, urtean 1.260 euro jasoko dituzte osoko bilkuretan eta organo kolegiatuen bilkuretan parte hartzeagatik.

Aipatu berri diren kopuruak urtero eguneratuko dira, eta horrez gain, Udaleko lanak direla eta dieta eta joan-etorrien gatik sortzen diren gastuak ere ordainduko zaizkie, horiek frogatu eta behar diren ordainagiriak aurkeztu ondotik.

Xehetasun gehiago Nafarroako Aldizkari Ofizialean iraillean argitaratutako 107. aldizkarian aurkituko dituzue.

### Mendaurko presa

Kantauriko Ur Konfederazioak Mendaurko presako uren aprobeixamenduko ezaugarriak aldatzeko egitasmoaren berri eman du Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

Zehazki, Central y Cogeneracion Ituren S.A. enpresak eskatu du Ituren eta Zubietako dermioetatik hartzen dituen uren aprobeixamendua ezaugarriak aldatzea. Mendaurko presan argindarra sortzeko segundoko 330 litroko emaria hartzen du enpresa honek, 100 litro Txitxillo eta Infernuko erreketatik, 30 litro Ibañatik, 150 litro Liñalekitik eta 50 litro Armaurritik.

Ezaugarrien aldaketarekin, sortutako potentzia 1.032 Kilowattetik 1.366 Kilowattetara igo da eta bi saltoen alduera ere haundituko da: 210 metro izatetik 220 metro izatera pasatuko

da goikoa eta 285 metrotik 300 metrora behetikoa.

Igoera hau bi zentralen automatizazioarekin eta presio bidezko tuberien diametroa haundituz lortuko da eta ez da ur-emaria handitu be-

harrik izanen. Beraz, ur kopuru berarekin potentzia handitzea da egitasmo honen helburuak.

Dena den, eskari honen kaltetuak direla usote dutenek erreklamazioak aurketzeko aukera izanen dute irailaren

29a bitarte. Horretarako, Ituren eta Zubietako Herriko Etxeetara joaten ahal dira edo Espainiako Iparraldeko Ur Konfederazioak Donostian duen bulegora, bertan baitago espedientea agerian.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

### Ehiza ibilaldia igandean

Urtero bezala, Mendaur Ehiza Elkarteak ehiza ibilbidea antolatu du. Igandean, hilak 21, izanen da Ameztiaren. 9:00etan emanen diote hasiera eta ondotik bazkaria egingen dute. Txapelketan izen ematerakoan bortz euro ordaindu beharko dira eta bazkide guztientzat bazkaria dohainik izanen da. Lehenengo sailkatuentzat trofeoak banatuko dira eta parte hartu nahi duenak irailaren 17a baino lehen egin beharko du, bai txapelketan aritzeko eta bai bazkarira joateko ere. Argazkia joan den urtean ateratakoa da.

**ZJ**  
**Zalain**  
jatexea - hostala

14 logela bainu eta TBrekin

Zalain auzoa z/g  
Tfnoa: 948 63 09 67  
BERA

**Behetik**  
AULKI JASOTZALEAK

Añorgatziki 14  
Tel: 943 372 870  
Fax: 943 372 870  
Fax: 943 365 586  
behetik@behetik.com  
20018 DONOSTIA

**D**

◀◀◀ HIRUKIDE ▶▶▶

Eguzki panelak ◀▶ iturgintza  
Elektrizitatea ◀▶ Aire egokitua  
Industria mantenimendua ◀

Zalain industrialdea 42 B - 15 • 31780 BERA (Nafarroa)  
948 625 395 • email: zerbitzua@terra.es

## URROTZ

# San Miguel bestak irailaren 26tik 30era

Igandean Euskal Herriko III. Mailako Aizkora Txapelketaren kanporaketa jokatu da

## Ortzirala 26

**20:00etan** altxaferoa Herriko Etxetik eta ezkil jotzea. **Ondotik** zopak eta xuri-beltxa Herriko Ostatuan. **Gauetz** dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin.

## Larunbata 27

**11:00etan** mus txapelketaren hasiera. **13:00etan** aizkora apustua: Raul Kastro-Oihan Larretxea / Ander Erasun - Julen Kañameres. **17:30ean** San Miguel torneoko finalaren pilota partidak. **Ilunabarrean** bertso poteoa. **Atsaldez eta gauetz** dantzaldia JALISKO BAND taldearekin.

## Igandea 28

### Haurren Eguna

**12:30ean** Euskal Herriko Hirugarren Mailako Aizkora Txapelketako kanporaketa: Unai Aldabe, Arkaitz Jauregi, Xabier Dorronsoro, Mikel Matxinandiarena, Je-

xux Oiarbide, Juan Carlos Perez de Onraita, Raul Kastro, Esteban Pikabea, Patxi Midegia, Juanjo Erdozia, Jexux Etxeberria eta Xabier Ariztegi. **16:30ean** haurrentzako parkea (puzgarriak). **18:00etan** Trikipand taldearen emanaldia. **22:00etan** herriko gazteen afaria. **Atsaldez eta gauetz** dantzaldia JOXE ANJEL akordeolariarekin

## Astlehena 29

### San Migel Eguna

**11:30ean** Meza Nagusia. **12:30ean** ota-mena denentzat eta herri kirolak herriko gazteen artean. **17:00etan** Gorritiren animaliak. **18:30ean** gazteen arteko jokoak, toka, zapel tiraketa, boloak... **20:00etan** Urrotzeko V. Patata Tortilla eta Postre Lehiaketa. Plazan prestatu nahi duenak sua eta mahaiak izanen ditu. **Atsaldez eta gauetz** dantzaldia AGERRALDE akordeolariarekin.



ARGAZKIAK: JOSEBA URROTZ

Herri bazkaria eta herriko gazteen arteko herri kirol saioa hutsik eginen ez duten ekitaldiak izanen dira aurtengo bestetan ere.

## Asteartea 30

### Bestetako azken eguna

**11:00etan** mus txapelketako finala.

**12:00etan** haurrentzat jokoak. **14:30ean** herri bazkaria Angel Mari Peñarikano eta Amets

Arzallus bertsolariarekin. **Atsaldez eta gauetz** dantzaldia JOXE ANJELekin.

ANZABAL  
AGENTZIA



- **Zurich Aseguruak**  
Autoa, etxebizitza, istripu eta bizitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**  
Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**  
Errenta Deklarazioa, BEZa...
- **Inmobiliaria**  
Baseri, borda, pisu, etab... salmenta eta alokairua
- **Gestoria**  
Ibilgailuen transferentziak, gidatzeko karnetaren berritzea eta edozein gisako gestioak

Santiago, 15 · ELIZONDO  
Tfnoa: 948 580 804  
anzabal@anzabal.com

Urrozko Udalak  
besta zoriontsuak  
opa dizkizue



gaztelu scl  
iturgintza

kalefakzioa · saneamendua · gasa  
Tfnoa: 948 510 086 · 948 510 156  
Faxa: 948 610 856  
LEITZA



## DONEZEBE

# Adin guztietako jendeari begira, Besta Ttikiak asteburu honetan

Ortziral ilunabarrean botako den txupinazoarekin hasiko dira

### ttipi-ttapa

Udalak Gazte Burrenba Kultur Taldearen eta ostatuen laguntzarekin antolatuta, ortziral honetan, hilak 19, hasi eta igandean, irailak 21, akituko dira Besta Ttikiak.

Ortziralean, 20:00etan botako duten altxaferoarekin hasiko dira. Ondotik Bear Zana txarangarekin kalejira izanen da. Afaltzeko tenorean, zopa jatea eginen da jatetxeetan. Gauerdian, 01:00etatik 04:30era dantzaldia izanen da Laiotz taldearekin Santa Luiza Plazan. 06:30ean zingar jatea Merkatu Plazan.

Larunbatean, 09:00etan diana izanen da Bear Zana txarangarekin. 11:00etan Gorriti eta bere animalien ikuskizuna. 13:00etan egitarauan hutsik egiten ez duen paella lehiaketa eginen da eta ondotik bazkaria. Arratsaldean, 17:00etatik aitzinera, txiste eta joku txapelketa eginen da eta ondotik triki poteoa.



ARTXIBOKO ARGAZKIA

**Besta Ttikiak egitarauan ohikoa bihurtu den ekitaldia da paella lehiaketa. Argazkia duela hiru urte ateratakoa da.**

Gauetz, 20:00etatik 22:00etara eta 01:00etatik 04:30era dantzaldia izanen da Jalisko Band taldearekin Santa Luiza Plazan. 21:00etatik 22:00etara dantza lehiaketa.

Igandean 17:00etan haurrentzako dantzaldia, Hoy fiesta taldearekin.

### **Erreka Dantza Taldea sortu da**

Erreka Kirol Elkarteak sail berria sortu du:

dantza taldea. Bertze gainerako kirol sailek bezala funtzionatuko du eta bi talde osatuko dituzte, gaztetxoena eta helduena. Erreka Dantza Taldeak Udalaren laguntza ere jasoko du eta trukean herrian egiten diren ekitaldietan parte hartuko dute dantzariak.

### **Futbol taldea lanean**

Nafarroako Erregionaleko Lehen Mailan ari-

ko den Doneztebe Futbol Taldeak bigarren denboraldiari ekin dio asteburu honetan. Infanzones taldea izanen du aurrez-aurre eta etxetik kanpo jokatu du partida. Halere, aipatu, herrian futbol-zelairik ez dagoelako, denboraldi honetan etxeko partidak Uhartan jokatu dituela.

Bertzalde, aurten estreinakoz, kadete mailako futbol taldea ere izanen du Doneztebek.

## LANA

# Langabezia %5,68 igo da eskualdean abuztuan

### ttipi-ttapa

Azken urte erdiko behetik joera galdu eta eskualdean langabezia %5,68 goiti egin du eskualdean abuztuan. Zehazki, abuztu hondarrean 595 langabetu ziren Doneztebeko Enplegu Bulegoan izena emana zutenak, uztailean hondarrean baino 32 gehiago. Doneztebeko Enplegu Bulegoaren bitartez 366 kontratu egin ziren abuztuan, uztailean egin zirenen erdia baino guttiago, eta horietatik 45 bakarrik izan ziren mugagabekoak. Adina eta sexuari dagokionez, ohikoa denez, 25 urtetik goitiko emakumeak dira langabezia gehien jasaten dutenak. 321 dira langabezia daukenden eskualdean, uztailean baino 11 gehiago. 25 urtetik goitiko gizasemeen artean ere nabarmen goiti egin du langabezia, 216 gizon baitaude lanikgabe, aitzineko hilabeteetan baino 21 gehiago. 25 urtez behetikoen artean, uztaileko langabetu kopuru berdina mantendu dira abuztuan. Lan arloei dagokionez, zerbitzuen arloak segitzen du diferentziarekin langabetu gehien biltzen, 361 langabaturerkin, uztailean baino 17 gehiago. Nekazaritza da langabezia gehien abuztuan.



## OITZ OIZKO EZPELDEGIKO USATEGIA ENKANTEAN

Oizko Udalak enkante publikoan jartzen du, ahozko posturen bidez eta urte baterako, Ezpeldegian kokatuak dauden uso postuen aprobetxamendua.

- |  |  |
|--|--|
| 1. uso postua. Hasierako prezioa: 1.500,00 € | 4. uso postua. Hasierako prezioa: 1.000,00 € |
| 2. uso postua. Hasierako prezioa: 1.500,00 € | 5. uso postua. Hasierako postua: 700,00 €    |
| 3. uso postua. Hasierako prezioa: 1.500,00 € | 6. uso postua. Hasierako prezioa: 500,00 €   |

Enkantean parte hartzeko, lizitatzailerak hasierako prezioaren %5 utzi beharko dute alde zuzenetik, behin-behineko fidantza gisa. Goiti jotzeko postura 50 eurokoa izanen da. Enkantea, irailaren 26an izanen da eguerdiko 13etan, Oizko udaletxean. Informazio gehiago nahi izanez, deitu 948-45-15-66 (eguerdiko 13tik atsaldako 16tara, asteartea eta ortzegunetan) telefonora edota 650-42-06-01 telefonora.

Oitzen 2008ko irailaren 5ean. Alkatea

## MALERREKA-BERTIZARANA

## FLASH

# Emakume Baserritarren Topaketa irailaren 27an eta 28an Bertizen

EHNE-Nafarroa sindikatuak eta COAG erakundeak antolatu dute

## ttipi-ttapa

*Nekazal Sindikalismoa eta Emakumeak: Aukera bat* lelopean Emakume Baserritarren XVII. Topaketa Estatala egingen da irailaren 27an eta 28an Bertizko Natur Parkean. EHNE-Nafarroa sindikatuak eta COAG erakundeak antolatutako ekimena da eta iragarri dutenez, Euskal Herriko emakume baserritar eta abeltzainez gain, kanpotik ere hurbilduko dira. Nekazaritzan zein abeltzaintzan emakume eta gizonezkoen eskubideen berdintasuna aldarrikatzeko topaketa izanen da.

Bi egunetako egitaraua prestatu dute antolatuzaileek.

## LARUNBATA

- 9:00etan ongi etorria eta dokumentazioa banatzea.
- 10:00etan topaketa mustutzea.
- 10:20ean hitzaldi nagusia: *nekazal sindikalismoa eta emakumeak*.
- 11:15ean hitzaldia: *landaguneko emakumeen parte-hartzea*.
- 12:00etan atsedena.
- 12:30ean hitzaldia: *abeltzain eta sindika-*

*lista gazte baten ilusioa etorkizunera begira.*

- 13:00etan eztabaida irekia hitzaldiei buruz, zalantzak argitzeko, galderak...
- 13:30ean tailerrak prestatzea: parte-partzea, lan eskubideak, baserri eta ustiatagietako arazoak gainditzeko ideia eraginkorrak eta landaguneko zerbitzuak.
- 14:00etan bazkaria.
- 16:00etan naturaren gaien mistika, antzerkia eta lau tailerren hasiera.
- 18:30ean Baztan eta Ultzamako bi ustiatagira bisita.
- Afaldu aitzinetik, umore-bakarrizketa Donamariako frontoian.
- 21:30ean afaria Donamariako Herriko Ostatuan.

## IGANDEA

- 10:00etan agurtzeko dinamika.
- 11:00etan topaketaren ondorioak.
- 12:00etan itxiera.
- 13:00etan hazien elkatruea eta agurra.

Jardunaldietan parte hartu nahi duenak irailaren 22a baino lehen eman beharko du izena 948 254841 (Josune).

Izen ematea dohainik da eta aipatu, gainera, haurtzaindegi zerbitzua ere izanen dela.

## Zubietako aurrekontua

Alkate eta udal ordezkariak berandu izen-

datzeak aurtengo aurrekontua onartzerakoan ere atzerapena sortu du Zubietan. Halere, dagoeneko onetsi dute, eta 271.584,74 eurokoa izanen da. Zatiirik haundiena inbertsioetara bideratuko da: 74.578,37 euro.



ARTXIBOA

## Kursaal Torneoko bere lehen txapela jantzi du Urrutiak

Migel Mari Urrutia saldiastarra da buruz buruko Casino Kursaal Torneoko txapeldun berria. Irailaren 6an Zeberio II.aren kontra jokaturako finala ezustea eman eta 29 eta 35 irabazi zuen. Bina aspaldian goi mailako erremontelaria dela erakutsia du Saldiasko atzelariak, baina txapel honekin buruz buru ere onenen artean dagoela berretsi zuen, Ezkurra, Lizaso edo Zeberio II.aren parean. Finalurreko ligaxkan Zeberio II.aren irabazi zion Urrutiari, eta gipuzkoarra zen faberito argia. Baina, pronostiko guziak hautsi, eta Urrutia erremonteko haundien artean sartu da.

## 9.000 euro aurreztu dituzte Bertizen biomasa erabilita

Eraikinak berotzeko, gasoilaren ordez pelleta erabilia 9.000 euro aurreztean lortu dute Bertizko Natur Parkean. Urtean guztira 30 tona erabili dituzte eta horrek 6.000 euroko gastua eragin die. Gasoilak, aldiz, 15.000 euroko gastua izanen luke. Pelletak zerrautsa trinkotuz egindako pastillak dira eta hondakin horietatik uste baino energia gehiago ater daiteke. Gaur egun, basogintzako eta nekazaritzako hondakinak erregai moduan erabiltzen dira eta Bertizen ere hala egin dute. Ur beroa eta bero-instalazioa basoko biomasaren bitartez lortzen dute. Oraindik Natur Parke guztian berokuntza sistema hau erabiltzen ez badute ere, kasu gehienetan bai: Balangondoa Etxea, Etxeberria Etxea, Txabola eta Turismo Bulegoan, hain zuzen. 160 kwko biomasa-galdara dute Bertizko Natur Parkean eta horrekin 1.039 metroko adro berotzen dira. Proiektuaren kostea 140.000 eurokoa izan zen, eta horren bame sartu zituzten egin beharreko instalazio guztiak.

## Q ziurtagiria lortzeko laguntza

Kalitate turistikoera erakusten duen Q ziurtagiria lortzeko eta mantentzeko dirulaguntza ematen die Nafarroako Gobernuo Kultura eta Turismo Departamentuak Nafarroako hainbat landa-etxe eta hotelei. Tartean, Beintza-Labaiengo Villa Argentinak 470,22 euro hartuko ditu.

**sarobe®**  
goztegia okindegia

pº de eztegara 25 bajo 1.948 63 08 99  
31780 berá (navarra) www.sarobe.net

Etxeko Ardi Gazta

**LIZUN**  
GAZTANDEGIA

Petxenekoborda · SUNBILLA · Tel: 948 450 862

# Berria erosi, eta aurreztuko duzu



## RENOVE PLANA

etxetresna elektrikoetarako



**Elektrizitate gutxiago gastatu nahi baduzu etxean, ez galdu aukera hau.**

**2008ko abenduaren 31 arte (edo kontusaila agortu arte)** Nafarroako Gobernuak eta IDAEk 85 euro emanen dizute zure etxetresna elektriko zaharrak erretiratu (hozkailuak, izozkailuak, arropa garbigailuak, ontzi garbigailuak, labeak eta gaineko sukaldeak) eta berriak erosteko (A motakoa edo goragoko mailakoa). Horretarako, aski duzu zure NANA eta bankuko kontu zenbakia aurkeztea kanpaina honi loturiko saltokietan.

**Zaharra kendu eta A motako etxetresna bat erosteagatik**

**85  
eura**

 **MINISTERIO DE INDUSTRIA, TURISMO Y COMERCIO**  **IDA** Instituto para la Diversificación y Ahorro de la Energía

Espainiako energia arloko eragimen eta aurrezkirako estrategia (PAE4+). 2008-2012 Ekintza Plana

Argibide gehiago [www.navarra.es](http://www.navarra.es) webgunean edo 848 42 55 14 telefonoan

**2012** ZUREKIN  
BAGOAZ AURRERA

 **Nafarroako  
Gobernua**

## LEITZA

## Urriaren 4an egingen da Aurrera Kirol Elkartearen II. Eguna

Kirola eta festa uztartuz egun osoko egitaraua antolatu du Aurrera Kirol Elkarteak

### Joseba URKIOLA

laz izandako arrakastari jarraipena emanez, Aurrera Kirol Elkarteak bere bigarren eguna ospatuko du urriaren 4an. Gisa honetako berrieekin, beste behin ere, nabaritu da herriko kirol elkarteak une latzak atzean utzi zituela eta egun sasoi onean dagoela.

Kirol Elkarteko ordezkari ekintza eta jardueraren ugariz homitutako eguna antolatu dute. Goiz-goizean hasi eta ordu txikiak iritsi arte, gauza ugariz gozatzeko aukera izango dute herritarrek. Programazioko eduki gehienak bazkideei gidatuta daude, baina halere, jaia herrira zabaldu dela aintzat hartuta bazkide ez diren herritarrek ere gogotik gozatu ahal izanen dute.

### 09:00 Diana

**10:00-14:00** Rokodromoa, tirolina eta zaldiak haurrentzat.

**11:00etan** Aurrerakoan artean pilota partidak plazan.

**Ondoren** Aurrerakoan dantza saioa.

**12:30ean** Aurrera Futbol Taldeko partida Ariskikilen.

**13:00etan** poteoa Incansables txarangarekin.

**14:30ean** Aurrerako bazkideen bazkaria Karrapen.

**Bazkaldoan** bazkideen ingurutxo.

**Ondoren** Incansables txarangarekin poteoa.

**21:30ean** luntxa Aurreran.


**Segidan** Agerralde akordeoilariarekin dantzaldia.

Aipatu, txartelak urriaren 1a bitarte egonen dira salgai, Txokon eta Peritzen, eta 65 urtetik goitikoentzat bazkaria dohainik izanen dela (deitu 608 789293ra)

### Jeiki abesbatzaren ikastaroa

Jeiki abesbatzak ikasturte berrirako kantu klaseak antolatu nahi ditu. Urritik aurrera egingen diren saioak laugarren edizioari dagozkie.

laz bezala, abesbatzako kideentzaz gain, herritar guztiei zabaldua dago gonbidapena. Interesatuak 635 714237ra hots egin beharko dute 16:00etatik 18:00ak bitarte. Horretarako azken



ARGAZKIA: JOSEBA URKIOLA

### Pentathloi froga berezia irailaren 27an

Donostiako uretan hasi eta Leitza amaitu ohi den proba berezia irailaren 27an, larunbata, egingen da. Urtero legez, Donostian, itsasoko lanak amaituta, bizikleta hartu eta Ibarra Tolosatik banatzen duen bidegurutzaraino erritmo lasai eta patsadatsu batean joateko gomendatzen da. Puntu honetatik aurrera, berriro ere, lehiari emanen zaio tartea. Hori Leitza Sagardotegira arte izango da. Hor parte-hartzaileek bizikletak utzi eta Gaztainaga ostatuan egonen den helmuga bitarteko lanak lasterka egin beharko dituzte. Pentathloia osatzeko geratzen diren beste bi frogak herriko taberna desberdinetan egingen dira. Argazkian ageri dena iazko irabazlea da.

eguna irailaren 19a izango da. Informazio gehiago eskuratzeko Karrape Irratira ere dei dezake nahi duen orok.

Nabarmendu, lehen-go ikasturtean bezala, kantu klaseak Iruñeko Eugenia Echaren eskolak emanen dituela.

### Urriaren kirol ikastaroak

Igerilekuak bere onak eman baditu ere, Udako Kiroldegiko ardura-dunek ez dute etenaldirik. Jada egituratua da, 2008-2009. ikasturteko kirol ikastaroen programazio zabal.

Egunerokotasunean kirolari tartetxo bat es-

kaini nahi dion pertsona ororentzat kirol eta jardueren eskaintza zabalago dago. Aipagarriena artean hauek daude: Pilates, Batuka/GAPB, Aero-fitness, Tai Chia eta gazteentzako muskulazio gidatua. Horietaz gain, multikirolak, yoga, aerobika, haurrentzako gimnasia eta haurrentzako karatea ere aukeran izanen dira.

Izena emateko epea irailaren 22an zabalduko da eta ikastaroak, urriaren 1ean hasiko dira. Izena eman nahi duenak kiroldegiko sarrerara jo behar du. Gainerako xehetasunak 948 510719ra deituta.

### Kultur arteko hezkuntza lantzeko tailerra

Leitzaldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak aisialdian eta hezkuntzan lanean dabilen eskualdeko hezitzaile, irakasle eta antzeko ez zuzendutako ikastaroa antolatu du. Ikastaroa urri bukaeratik azarora izanen da eta kultur arteko taldearekin adituak diren Urtxintxako kideek emanen dute. Prezioa 10 eurokoa da langabetuentzat eta 20 eurokoa lanean ari direnentzat. Bederatzi orduko iraupena izanen du eta izena emateko deitu 948 510840 telefonora (Ur Algero).

**suteia**  
INSTALAZIOAK

igogailuen instalazioa



Erlategi Plaza, 8 bajo ELIZONDO (Na)  
Tel.-Fax: 948 452557 M: 649 699 820/810  
suteia@suteia.com



Gremio guziak koordinatuz eta proiektuaren ardura hartuz, zure igogailua instalatzen dizugu


2008

IGANTZIko  
bestak



**CONSTRUCCIONES MECANICAS**  
**BERRIZTUN, S.L.**  
 • Makinaria eraikuntza  
 • Moldaketa eta despiezea  
 • Mantenimendu mekanikoa  
 • Torno, fresadorak, errektifikadorak

Igantziako Bentak • Tel.: 948 627 572 • Faxa: 948 637 508



# IGANTZI

irailak **20** LARUNBATA

- 10:00 Herriko haurren **PILOTA PARTIDAK**
- 16:00 **PLATER-TIROKETA** Ziobin
- 20:00 Herriko **DANTZARIEN EMANALDIA**
- 21:30 **BERTSO AFARIA**  
Zelaieta, Urdangarin eta Zubeldia

**igantziko harrobiak**  
*Besta ederrak pasa!!*  
 948 637 288 • IGANTZI

**SEGUROS LAGUN ARO ASEGURUAK**  
 Oskar Txoperena  
 Klase guztietako aseguruak herrian bertan!  
 Tel-Faxa: 948 637 236 • Mug.: 610 507 579  
 Baratzondo, 1 • IGANTZI



**JOSE AGERRE**  
 pinturak  
**PINTURA LANAK OROKORREAN**  
 Kanpo eta barneko pintura  
 Barnizatze eta lakatzeak  
 Parket Flotatzailea jartzen dugu  
 610 221 528  
 948 638 144  
 BERRIZTUN

irailak **21** IGANDEA

- 10:00 Karrikan buelta **TXISTULARI** eta **TRIKITILARIEKIN**
- 12:00 **V. GAZTA LEHIAKETA**
- 16:30 **XXIX. ARTZAIN ZAKUR** lehiaketa
- 19:30 **SAGARDO BESTA** trikitilariekin

**Jose Canabal**  
 Instalazio elektrikoak orokorrean  
**ARGIZTAPENA MATXURAK • ALARMAK**  
**ONGI PASA BESTAK!!**  
 ☎ 666 57 58 99 • 948 637 541  
 IGANTZI  
 josecanabal@tiscali.es

irailak **26** ORTZIRALA



- 17:30 **TRIKIPOTEOA**
- 18:30 **GINKANA**
- 23:00 **ROCK KONTZERTUAK**



irailak **27** LARUNBATA

- 10:00 **MUS TXAPELKETA**
- Ondotik **TOKA** jubilatuentzat
- 10:30 Haurrentzat **HERRI KIROL ERAKUSTALDIA**
- 12:00 **ALTXAFEROA**
- 16:30 Haurrentzako **POTTOKAK** aparkalekuan
- 18:30 **HERRI KIROLAK**
- 22:00 **PIROTEKNIA**
- 00:00 Dantzaldia **RUBIS** taldearekin
- 01:00 **BATUKADA** Los Rubis perkusio taldearekin
- 02:00 Dantzaldia **RUBIS** taldearekin

**ATM S.A.**  
 AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METAICOS S.A.  
 • Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera.  
 • Enbalaketa elementuak eta flejeak.  
 • Garraioak zintak eta mahaiaik  
 • Mantenu rodilloak  
**Ongi pasa bestak!!**  
 Igantziko bentak  
 948 63 74 11



irailak **28** **IGANDEA**  
Ezkonduen Eguna



- 09:30 KALEJIRA gaiteroekin
- 12:00 BETIZUAK errektadoreekin
- 16:30 DANTZA JAZZ
- 18:30 Profesionalen PILOTA PARTIDA
- 20:00 Dantzaldia TRIKIHOTS taldearekin
- 21:30 MUSIKOAK
- 22:00 PIROTEKNIA erakustaldia
- 23:30 Dantzaldia TRIKIHOTS taldearekin

irailak **29** **ASTELEHENA**  
San Migel Eguna

- 10:00 Karrikan bueltan TXISTULARI eta TRIKITILARIEKIN
- 11:00 MEZA NAGUSIA herriko abesbatzak kantatua
- 12:30 HERRIKO DANTZARIAK
- 18:00 BERTSO PILOTA
- 20:00 Dantzaldia EGAN taldearekin
- 23:00 Dantzaldia EGAN taldearekin



irailak **30** **ASTEARTEA**  
Haurren Eguna

- 10:00 Karrikan buelta TXISTULARI eta TRIKITILARIEKIN
- 10:30/12:30 PUZGARRIAK
- 12:00 BETIZUAK
- 14:30 HERRI BAZKARIA Colina eta Egaña bertsolariekin
- 15:30/17:30 PUZGARRIA
- 17:30 BOMBA JAPONIARRAK
- 10:30/20:30 Dantzaldia MODESTO akordeoilariarekin
- 20:00 ASTO LASTERKETA
- 00:00 Dantzaldia MODESTO akordeoilariarekin
- Ondotik GALTZA JARIO lasterketa



**OKILA**  
zurgindegia

- tarimak, leihoak, atepak, eskailerak...
- obretako lanak orokorrean

Lander Sein  
Mikel Arburua



On egin janak eta kalterik ez edanak!

948 637 249 • Piedade gaina z/g  
IGANTZI

**Carlos Txoperena**  
mendi garbiketak eta landaketak



Ongi pasa  
Saunigetak!

Tel: 948 637 477  
637 466 124  
LESAKA

**TALOTXA**  
IGANTZI ERAIKUNTZAK,



ongi pasa  
bestak!

Piedadeko auzoa, 8 · 31790 Igantzi (Nafarroa)  
608 20 21 26 / 618 90 18

**LA VILLA**  
JATETXEA



Urte osoan, ortziral,  
larunbat eta igandetan afariak

ongi pasa bestak!

Telf.: 948 63 72 90 • IGANTZI



**bortzirudi**

Kamisetak  
material guztietan inprimatzen dugu  
formato handiko inpresioak:

**GORA SAN MIGELAK  
ONGI PASA BESTAK**

Estegana 26, D 31780 BERRA  
Tel-Faxia: 948 63 15 21  
bortzirudi@telefonicanet



**TALLERES BERRIZAUN**  
GASOLINERA LESAKA  
IMANOL TELLETXEA ZOZAYA

Tfnoa: 948 63 74 60      31770 Lesaka (NAVARRE)

Gas-olioa etxez etxe banatzen da  
Kotxe berri eta zaharren salmenta  
**BESTA EDERRAK PASA !!**

**Iguzkiagirre  
Iturbide**  
ONGI PASA BESTAK!



· Harategia  
· Janaridenda

Nagusia, 61 · IGANTZI  
☎ 948 637 261

ONGI PASA BESTAK



**ALLINEA**  
ostalua jatetxea



Karrika  
Nagusia  
IGANTZI  
948637497



**Haritza  
belardenda**

MASAJISTA  
MEDIKU NATURISTA  
KONTSULTA

ONGI  
PASA  
BESTAK!

Legia, 1 behea  
31780 BERRA  
Tel.: 948 63 06 52



**Igantzikoko Udalak  
besta onak opa dizkizue  
igantziar eta bisitari  
guztiei**





## GOIZUETA

### Euskal Jaiarekin eta rock kontzertuarekin emanen diote denboraldiari bukaera Iskibi kanpinean

Igande honetan Euskal Jaia egingen da eta hilaren 27an kontzertua

#### Esteban AROTZENA

Iskibi kanpineko arduradunek —Joxepa, Dabid eta Joseba— goi mailako azken agurra eman nahi diote aurtengo denboraldiari. Horretarako, ekitaldiz betetako Euskal Jaia antolatu dute hurrengo iganderako, hilak 21, eta musika gau ederra hilak 27 larunbaterako.

13:00etako Umore Ona Koroaren kantadiak emanen dio hasiera igandeko Euskal Jaiari. Ondotik, herri kirolak izanen dira Goizueta eta Oiartzungo bi talderen arteko lehiarekin. Hauek bukatutakoan talo jateari ekinen zaio. Lau jaki ezberdinez beteta jan ahal izanen da taloa.

Bazkalondotik toka txapelketa egingen da, eta 18:00etatik aurrera, erromeria Bide Batez tri-

kitixa taldearen eskutik. Dultzaineroak eta txalapartariak ere joko dute egunean zehar. Bazkariari buruz, esan, txartelak Amaiareneandaudela, edo egon direla, salgai.

Larunbata 27an, Desoreka rock talde eza-gunaren kontzertua antolatu dute 23:00etarako. Aritz Sound System DJaren emanaldiak emanen diote bukaera gauari eta Iskibiko aurtengo denboraldiari.

#### 100.000 euroko dirulaguntza

Nafarroako Larrialdietarako Agentziaren bidez, ia 100.000 euroko dirulaguntza jaso berri du Udalak Nafarroako Gobernutik.

Dirutza horren puskarik haundiena, 42.000 euro, anbulan-




UTZITAKO ARGAZKIA

Urtean zehar hainbat ekitaldi antolatzen dituzte Iskibi kanpinetakoek, eta horien artean dago denboraldi hasieran herritarrentzako globoa ekarri zutenekoa.

tzia berria erosteko izanen da, lehengo ezin baita erabili dagoeneko zortzi urte beteak dituelako. Ia 30.000 euro suhiltzaileen egoitzarako eta ekipamendurako dira. Eta beste 26.000 euro iaz erositako suhiltzaileen kamioiarengatik, Udalak ordaindutakoaren truke izanen dira.

#### Aparkalekua Behokolandan

Nordia Ekival eta Plasticos Koldoren pabiloien artean Udalarena den lur sailean 20 kotxerentzako lekua izanen duen aparkalekua eraikiko da ondoko hilabeteetan. 24.000 euroko aurrekontua du obrak eta dirutza horren erdia Nafarroako Gobernuak subentzionatuko du.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

**Beste txapel bat herrian**  
Abuztuaren 31n jokatu ziren Antiguako Pilota Txapelketaren finalak eta jubenetako irabazlea Oier Apezetxea izan zen, Albisu gipuzkoararekin bikotea osatuz.

948 631 218  
Kanttonberri 1, BERA  
BIZIKLETEN SALMENTA ETA KONPONKETA  
**KATEA-BIKE**

**Pitti**  
eskabazioak  
Tel: 616 513 491

Mendialdea etxea, 34 ZUBIETA

**EDARIAK**

**MANUEL TABERNA S.L.**  
Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)  
Tel. Fax: 948 63 10 27

## ARESO

## Kirol gunea zabaldu nahi da eskolaren atzeko patioan

*Zeuk aukeratzen duzu, zeuk erabakitzen duzu* egitasmoaren bidez proiektua lagun daiteke

**Juana Mari SAIZAR**

Futbitoa, eskubaloia, tenisa eta boleibola bezalako kirolean aritzeko aukera ematen duen gunea, *agorespace* delakoa, ezarriko da eskolaren atzeko aldeko patioan. Horretarako, ordea, laguntza behar da eta Nafarroako Kutxaren *zeuk aukeratzen duzu, zeuk erabakitzen duzu* egitasmoaren bidez Nafarroako Kutxan kontu korrontea duten aresoar guztiei proiektuarentzako laguntza

eman dezakete. Aurtentzen bozkatu eta heldu den urtean eginen litzateke proiektua.

### *Ehiza postuen enkantea*

Ehiza sasoia gainean dugun honetan, postuen lehen enkantea larunbat honetan, irailak 20, egingo da. Bigarrena, berriz, heldu den larunbatean, irailaren 27an.

### *Apaiz berria*

Herrian apaiz berriak zerbitzatuko gai-



ARGAZKIA: ANE MIREN BARANDIARAN

### *Hasi da ikasturtea!*

Iraila ailegatzearekin batera, ikasle zein irakasleak itzuli dira euren ohiko martxara. Areson ere hasi dira neska-mutikoak eskolan, eta batzuk oso pozik, goiko irudian ikusten denez. Argazkia joan den astean errekreoan ateratakoa da eskolaren atzeko aldean. Toki horretan, eskola atzean, egin nahi dute, hain zuzen, aipatutako *agorespace* gunea. Gainerakoan, esan, aurtentzen eskolan hasi diren hiru urteko haurrak bi dira: Soraya eta Maialen.

tu irailetik aurrera, Anderrek. Patxi parrokoa, berriz bere osasuna dela-eta, deskantsatzera joan da eta Iñaki frai-

leak azken sei hilabeteetan lagundu du herrian.

Bestalde, aipatu, elizako obrak aurrera

doazela eta hilabete eta erdi barru bukatzearegongo direla. Guztiz itxura berrituta ikusiko dugu eliza.

## ARANO

## Pedro Ansa herriko artzaina hirugarren izan da Uharte Arakilgo Artzain Zakur Lehiaketan

Txukunen jantzitako artzainaren saria eta zakur arraza garbienaren saria jaso dituzte

**Maidar ANSA**

Abuztuaren 31n Uharte Arakilen egindako Artzain Zakur Lehiaketan hirugarren postua lortu zuten Pedro Ansa eta *Alai* bere zakurrak. Hala ere, ez zen egun hartan lortutako sari bakarra izan. Pedrok txukunen jantzitako artzainaren saria lortu zuen eta *Alak*, euskal artzain zakur arraza gar-

bienaren saria. Sari pozgarriak inondik ere.

Pedrok esperientzia oparoa izan du sariketa honetan. 1973an, 1975ean eta 1988an txapel-dun atera zen, esaterako. Hala ere, ez da parte hartzen duen sariketa bakarra. Irailaren 7an Gironan jokaturako txapelketan ere parte hartu zuen *Alai*ekin eta bos-

garren postua lortu dute. Baita euskal artzain txakur arraza garbienaren saria ere, Uharten bezala. Esan beharra dago, zakur honek bi urte besterik ez dituela eta oraindik ikasten ari dela ardi zaintzan, baina argi dago etorkizun oparoa izango duela Pedrokekin.

Bestalde, Aranotik zorriondu Uharte Arakilen



ARGAZKIA: MAIDAR ANSA

*Alak* hirugarren postua lortu du Pedro Ansarekin.

lehen postua lortu zuten Aresoko Antonio Alustiza eta *Tiki* bere zakurra-

ri. Baita Jose Mari Ixtilart eta *Laguri* ere, bigarren geratu ziren amaiurtarrei.



• PVC ETA ALUMINIOZKO LEIHOEN FABRIKAZIOA • SALMENTA ETA INSTALAZIOA



- NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK
- DISEINU ETA MODELO EZBERDINAK
- BANAKAKO SOLUZIOAK
- ISOLAMENDU TERMIKO ETA AKUSTIKOAK
- ENERGIA AURREZPENAK

[www.betikopvc.com](http://www.betikopvc.com)

[betikopvc@terra.es](mailto:betikopvc@terra.es)

Ordoki industrialdea z/g · Tel.: 948 453 259 · Faxa: 948 453 423 · 31713 ARIZKUN (Nafarroa)

## BAZTAN

# Haur eta Lehen Hezkuntzako eskola berria inauguratu dute Almandozen

Inaugurazio ekitaldian berriki erretiroa hartu duen Joxe Urroz omendu dute

## Maite OTEIZA

Almandozek eskola berria du joan den asteaz geroztik. Haur eta Lehen Hezkuntzako eskola berria irailaren 9an inauguratu zuten. Guztira 21 ikasle ari dira D ereduan eta lan hauetarako 346.328,47 euroko inbertsioa egin da. Eycons Obras y Proyectos SL enpresak egin ditu lanak, Juan Carlos Mugertza Santos eta Carlos Iriondo Apaola arkitektoen proiektuaren arabera.

310 metro koadroko solairu bakarrean biltzen dira 40 metro koadroko bi ikasgelak, 60 metro koadroko erabilera anitzeko gela, zuzendariaren bulegoa, komunak, garbiketa gela eta por-txea ditu.

Inaugurazio ekitaldian, Virginia Aleman alkatearekin eta udal ordezkariarekin batera, Carlos Perez-Nievas Nafarroako Gobernu Hezkuntza kontseilaria eta Landa Garapen eta Ingurumen Kontseilaria ez ezik, Eskola Kontseiluko presidentea ere baden Begoña Sanzberro almandoztarra izan ziren.

Maria Natividad Barrangan Zozaiaren zu-



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

**Almandozko ikasleen lana hurbiletik ikusi zuten inaugurazioan parte hartu zuten udal eta gobernu ordezkariak.**

zendaritzapean, Almandozko eskolak 21 ikasle ditu ikasturte honetan, 5 Haur Hezkuntzan eta 16 Lehen Hezkuntzan. Ikastetxeko 3 irakasleekin batera, ber-tze ikastetxeetan ere aritzen diren 4 irakaslek ematen dituzte Musika, Soin Hezkuntza eta Pedagogia terapeutikoa ikasgaiak, orientatzaileekin batera.

## JOXE URROZI OMENALDIA

Perez-Nievas kontseilariak Almandozko ikastetxe berriaren inaugurazioa aprobetxatu zuten abuztuaren 31n erretiratu zen Joxe Urroz

Arrastio irakasleari omendaldi xumea eskaintzeko. 1974-75 ikasturtetik teknologia mekanikoa irakasgai eman du Elizondoko Lanbide eskolan eta 34 ikasturte hauetan zuzendaria ere izan da. Hezkuntza Departamentuak argitaratutako liburu-sorta jaso zuen Joxe Urrozek.

## Irurritako Dantzari Eguna

Abuztuaren 31n Irurritako herriko plazan bertako dantzarien erakustaldia izan zen. Aurtengoan eguraldia lagur izan zuten eta 60ren bat dantzarik ordu eta erdiz kolorez eta

musikaz alaitu zuten plaza.

Aurreskuarekin hasiera emanez, txikiak segitu zuten, gazteen taldeei pausua emanez. Urteetan galdua zen San Migel dantza eta orain dela urte batzuk berreskuratu zena ere ikusi genuen. Pena da herriko bes-tetan ez dela dantzatzeko, garai batean egin zuten bezala!

Irurita dantzarien eta pilotarien herria izan da beti, Don Jesus Jaimerena apezari esker. Iruritan egon zen urteetan lan ikaragarria egin zuen, euskal kultura bultzatuz eta he-

riak beti eskertuko dio. Egun hori dantzariak izan direnendako txirrinta eguna izaten da, sabeleko xixarea iratzarri egiten delakoz.

Bestari jarraipena emateko zikiro-jatea izan zen, eta bazkalondoa eta arratsaldea Salaberrik alaitu zuen.

Dena den, urritik aitzinerat, entsaioekin hasteko asmoa dago, astean behin, Gizarte Bilgunean. Dantza ikasi nahi dituen adin guztietako jendearentzako egonen da zabalik eta hemendik bereziki mutilak animatu nahi ditugu.

## Lehen mailako arreta ematen duten kontsulta batzuk baliozkotukoak

Lehen mailako arreta ematen duten Baztango hainbat kontsultategiren baimen administratiboa baliozkotu du Nafarroako Gobernu Osasun Departamentuak. Bortz urteko iraupena izanen du baliozkotasun horrek eta herri hauetako kontsultei eragingen die: Amaiur, Ziga, Berroeta, Erratzu, Irurita, Arizkun eta Oronoz-Mugari.

**POTTOKI**

Baztanberri Plaza, 3 - behea  
31700 ELIZONDO (Nafarroa)  
Tfnoa.: 948 581 983  
info@pottoki.com  
www.pottoki.com

Astelehenetik  
larunbatera:  
9:30 - 13:30  
16:30 - 20:00

**Pierresenea**

OSTATU · JATETXEA

Jaki tipikoak · Etxeko giroa

Iturriotz auzoa - Tfnoa: 948 592 043  
ORONÓZ - MUGAIRI

## BAZTAN

# Ameriketara artzain joandakoen omenezko eguna egingen da igande honetan Elizondon

Udalak eta Artzain Munduak antolatutako ekimena da

### Maite OTEIZA

*Ameriketarat gana, artzain doike!* lelopean egun berezia antolatuta dute Udalak eta Artzain Munduak elkarlanean. Ameriketara joan ziren artzainei omenaldia eskaintzea da asmoa eta horregatik egun osoko egitaraua prestatu dute igande honetarako, irailaren 21erako.

### ELIZONDOKO PARROKIA

- 10:00etan meza.

### MERKATUKO PLAZA

- 11:00etan zaldiekin ibilbidea Ardi Kanporaino (Merkatuko Plaza).

- 11:30etik 13:30era Ardi Kanpoan artzainen bizimoduari buruzko erakusketa.

- 13:30ean bazkaria.

- Bazkalondan, Mutildantzak, JALISKO BAND taldearekin dantzaldia eta hainbat sorpresa.

Bazkarirako txartelak hartzeko epea da-

goeneko itxita dago, baina, aipatu, lehentasuna artzainei eman nahi zaenez, artzain bakoitzeko lagun batek joateko aukera izanen duela.

Topaketa honen laugarren edizioa izanen da igandekoa. Aitzineko aldietan Lesakan, Alududen (Nafarroa Beherea) eta Gernikan (Bizkaia) egin zen besta egun hau, eta orain Baztanek hartu du lekukoa.

### Q ziurtagiria lortzeko dirulaguntza

Nafarroako 11 hotelak eta bederatzi landa-etxe kalitate turistikoa erakusten duen Q ziurtagiria lortzeko eta behin eskuratutakoan hori mantentzeko dirulaguntza hartuko dute Nafarroako Gobernuaren eskutik. Apirilaren 23an Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako deialdiari erantzunez eman ditu laguntza hauek Gobernuak.

Guztira 37.000 euro banatuko ditu, eta Baztani dagokionez, bi landa-etxek jasoko dute: Arizkungo Lizardiko Borda landa-etxeak 235,39 euro jasoko ditu; eta Elizondoko Urruskak 259,29 euro.

### Baztan Ikastolarentzako dirulaguntza

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren bitartez, Baztan Ikastolak 585,23 euroko dirulaguntza jasoko du ikas-

turte honetan eskolaz kanpoko ekintzak eta bertzelako ekimenak antolatzeko. Dirulaguntza hori ikastetxe pribatuei Nafarroako Gobernuak ematen dien laguntzen barrenean onartu du.



ARGAZKIA: J. A. PEROTXENAK UTZITAKOA

### 30 urte bete ditu Baztan Errugbi Taldeak

Ez bat, eta ez bi. 30 urte igaro dira Baztan Errugbi Taldea (BRT) sortu zenetik. 1978an izan zen eta horren harira, egun berezia antolatu zuten irailaren 13an. Bazkalondan hasi eta ilunabarrera arte errugbi partidak jokatu zituzten: emakumezkoetan Unika-Baztan eta Baiona; gazteetan, Baztan eta Tutera; gizonetzkoetan Baztan eta Senpere. Horrez gain, ttikientzako, puzgarriak izan dira eta musikarekin ostatua ere paratu zuten. Argazkia 1978an ateratakoa da, orduko jokalariekin.

**ITURRALDE**  
pvc & aluminio

☎ 667 264 025 • 948 581 967  
✉ maxene@terra.es

*Eskisaroi*  
jatetxea

Jaime Urrutia  
Tfnoa: 948 580 013  
ELIZONDO

**SOULE**  
hileta artea

Tfnoa: 948 453 444  
Mug.: 629 659 583  
ARIZKUN

**MONTXO** OSTATUA

Dantxarinetik  
2 km-tara

**TABAKO-DENDA**  
ANZAN-BORDA - VRDAZVBI

Egunero irekia 10:30etik 02:30era

## BAZTAN

# Anizko Arrosarioko Amabirjin bestak urriaren 4tik 6ra

Egun haundian herri kirolak Basaburuako gazteen eta helduen artean

## Launbeta 4 Bezpera

11:00etan ezkil jozteak eta altxaferoak. 11:30ean haurrentzako jokoak. 14:00etan haurrentzako bazkaria. 15:30ean gaztelu puzgarriak. 18:00etan txokolata jatea. 19:30ean dantzaldia MIKEL SALABERRIrekin. 20:45ean Baztan Zopak. Ondotik dantzaldia MIKEL SALABERRIrekin. Akitzeko zingar jatea.

## Igendia 5 Arrosarioko Amabirjinaren Egune

11:00etan kalejira txistulariekin. 12:00etan Meza Nagusia. 13:00etan otordua. 17:30ean herri-kirolak. Proba konbinatuak Basaburuako gazteen eta helduen artean. 19:00etan kantaldia. Ondotik afaria.

## Astelehena 6 Adiskidetasun Egune

11:00etan mus txapelketa. 14:00etan zikiro jatea, Joxe Angel akordeoilariak alaituta. 17:00etan ginkana. 21:00etan zingar jatea. Akitzeko GIZAJOANI.



ARGAZKIAK: ARTXIBOKOAK ETA MAIDER AZKARATEK UTZITAKOAK

Goiko argazkia 2006ako zingar jatean ateratakoa da; bigarrena ere urte berekoa da eta hirugarrena, berriz, joan den urteko mus txapelketan ateratakoa da. Aurten ere seguru ez dela umorerik faltako.

ANTXITONEA  
Trinketea

Jatetxea - Ostaturia  
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Inarte karrika  
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 · 948 581 853

Okindegia Jatetxea

Uxoa

OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata  
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)  
Especialitatea parrillan erretako jakietan  
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen errea,  
goxo goxoa!

Ordoki Industrialdea  
Tfnoa: 948 453 403  
31713 ARIZKUN

## SARA

### Ehun errugbilari baino gehiago bildu ziren Seaskako Integrazio Batzordearen alde

13 taldek parte hartu zuten bi mailatan banatua zen txapelketan

#### Xan HARRIAGUE

Ikastolak eta Errugbi Elkartek elkarrekin antolatutako zazpina-kako txapelketak arrakasta polita izan zuen lehen urterako. Seaskako Integrazio Batzordearen alde sosa biltezeko 120 bat errugbilari bildu ziren Animaineko zelaian. Bi mailatan jokatu zen, alde batetik usaia gutxi dutenak aritu ziren, eta bertetik errugbilari zaharrenak. Lehenean bost talde aritu ziren, gehienak herrikoak. Horretan aritu ziren ikastolako gurasoak, Zpez Mukakiko dantzariak eta gazte txeko zaharrak. Bigarrenean, nahiz eta adin pixka bat izan, maila hobe izan zen Biarritze eta Donibane Lohitzuneko jokalariei ohiak aritu baitziren.

Baina talde tikiagoe-tako errugbilariak ere nahiko ongi aritu ziren,

nahiz eta lehen bezain-bat usaiarik ez izan. Tartean herrikoak aritu ziren, baina baita Azkaingoak edo Sarako Korrikakoek osatutako taldeak ere. Giro oso polita egon zen eta arrasean denak batera afaldu zuten zikiroa.

#### Sartzea

Egun gutxi falta dira uda bukatzeko, eta haurrak jadanik eskolan hasiak dira. Buruilaren 2an abiatu zen aurtengo ikasturtea. Seroaren eskola da haur gehien duena aurten, 94. Ondotik dator publikoa 66 haurrekin, eta azkenik ikastola 58 lagunekin.

#### Hirugarren adinekoen ateraldia

Erretretan direnen urteko ateraldia Ospitalepean eginen da aurten, buruilaren 24an. Hango eliza bisitatu eta han



ARGAZKIA: XAN HARRIAGUE

Errugbi txapelketaren irabazleak sari bereziak ukan zituztenekin batera.



ARGAZKIA: X. HARRIAGUE

#### Realeko jokalariek bisitan

Mikel Aranburu, Mikel Labaka, Jon Antsoategi eta Eñaut Zubikarai Realeko jokalariek bisita egin zioten Atxuri-uridin peñari. Joan den astelehenean zortzi, Donostiako futbol taldeko 15 bat jarraitzaile bildu ziren Pleka trinketean, eta jokalariekin solastu ahal izan zuten pintxo batzuk jaten zituzten bitartean. Hurrek zein helduek ez zuten aukera huts egin autografo batzuen eskatzeko.

bazkalduko dute. Xiberura joan nahi dutenek

izena eman behar dute Herriko Etxean heldu

den ortzirala baino lehen.

**ERRETEGIA ORDOKI LIKOREAK**  
Parrilan egindako haragi eta arrainak  
Tel: 948 453 410 Fax: 948 453 378 · ARIZKUN

**HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA**  
CAFÉ DE LA MAIRIE  
T: 0559542519  
Maixan eta Véronique  
**SARA**

**BURKAITZEA**  
· ostatu  
· erretegia  
Zugarramurdiko bidea, 3 km  
948 599 280 · URDAZUBI

**SEAT**  
**WOLKSWAGEN**  
**HYUNDAI**  
**AUDI**

**ZOANSA**  
MARKA GUZTIEN KONPONKETA  
Banarta, 2 - Alkaia industrialdea  
LESAKA (sarrera Beratik)  
Tel: 948 625 555 · Faxa: 948 625 505

## SEMPERE

# Olivier Haroçarenek trinketeko laugarren munduko kopan parte hartuko du Kuban

550 gaztek eskolako bidea hartu dute berriz, aurten irakasle gutiagorekin

**Franck DOLOSOR**

Olivier Haroçarene Zuraideko Altzarri taldean ari den senpertia buruilaren 21etik 28rat Habanan (Kuba) jokatu den trinketeko laugarren munduko kopan parte hartuko du. 1997az geroz lau urte tik behin egiten da zoingehiagoka hau. Orain arte, hiru aldiz segidan Baionan jokatu da. Aurten Kuban 6 herrialde-tako 120 kirolari ari dira 10 joko desberdinetan.

Haroçarene bidaiatzen usatua da duela bi urte zilarrezko medaila irabazi baitzuen Mexikon jokatu zen munduko pilota txapelketan. Berriki, berriz, 40 eta 26ko markagailuarekin nagusitu zitzaion Gregory Aguirre urruñarrari Irungo Ramuntxo Berri trinkete berri-tuan, Europako trinkete txapelketaren kariatat.

## 550 ikaslek ikasturte berria hasi dute

Buruilarekin batera, hasi dute ikasturtea herriko ikastetxe guztiek. Halere, aipatzekoa da, lanpostu erdibana galdu dutela aurten San Joseph ikastetxeak eta eskola publikoak. Eskola girixtinoan 175 ikasle dabilta, batzuek eskuara ere ikasten dute, eta bertze batzuek ingelesa ere bai, 7 urtetik goitikoek. Eskola publikoan eta ikastolan 250 eta 70 gazte daude, hurrenez hurren, gan den urtean baino gehiago.

Azkenik, Amotzeko eskola publikoa dago. Hemen bi ikasgela bada eta bakoitzak 25 ikasle ditu. Herria lan haundia egiten ari da Amotzeko eskola haunditzeko. Hiru ikasgela eraikitzen ari dira Amotze auzoa azkarki haunditzen ari baita.



UTZITAKO ARGAZKIA

Haroçarene senpertia Irungo finalean.



ARGAZKIA: ARDATZA ARROUDET ELKARTEAK UTZITAKO

## Zubiberriko errotaren etorkizuna kolokan

Zubiberri aldean diren bi errotak erosi eta osoki botako ditu herriak. Choin anderearen errota erosi du jadanik Herriko Etxeak baina zailtasun gehiago dute Darguy jaunaren errota erosteko. Jabeak bertze norbait alokatzen dio etxea eta ezin dute gaztea kanporat eraman. Darguyren errota 1756 urtekoa da eta Choinena 1804koa. Senpereko leku paregabeak dira, baina andere auzapezak dio, osoki desegin behar direla Luberriako urtegia beteko delarik urak estaliko baititu bi etxe hauek. Bessonartek ez du arriskurik hartu nahi uste baitu norbait egonen dela beti errotan ez badira botatzen. Auzapezak hitz eman du harri eta zati baliosenak atxikiko dituztela ondarea zaintzen duten adituen laguntza izanen baitu herriak errotak botatzeko. Argazkian Choinen errota ageri da.

VENTA PEJO RESTAURANT

Landibar

VENTA PEJO ALIMENTACION

Tabac - Cave a cigares - Pizzeria - Cadeaux - Parfumerie - Cosmetique

Landibar

**Landibar** ZENTRO KOMERTZIALA

- 300m perfume markarik ezagunenekin, usain onak, kosmetikoak...
- Euskal Herriko preziorik hoberenak

**EGUNERO IREKIA**

Tel: (0034) 948 599 400 · URDAZUBI

**arkilanak**

ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA

ETXEBIZITZA PROIEKTOAK  
URBANIZAZIO PROIEKTOAK  
ETXE BERRITZEAK  
NABEAK  
KONSULTAK  
INFOGRAFIA: 3D

ELIZONDO • Santiago, 54 behea • 948 581 931  
BERA • Eztegarra, 8 behea • 948 625 232



## URDAZUBI

# Urtero bezala, mugarriak berrikusi dituzte inguruko udal ordezkariak

Urdazubi, Senpere, Ainhoa eta Baztangoak elkartu dira

### ttiipi-ttapa

Urtero bezala, Baztanek Urdazubi, Senpere eta Ainhoarekin muga egiten duten tokiak berrikusi zituzten irailaren 8an udal ordezkari eta mendizainek. Mugarriak ikusten, bertzeak bertze, Santiago Villares alkatea eta Baztango alkate eta zinegotziak eta Baztango herrietako alkateak izan ziren.

Goizean mugarren egoera zein zen aztertu ondotik, denak elkarrekin bazkaldu zuten Pako Bentan.



MARTIN GARDEK UTZITAKO ARGAZKIA

Mugarrien berrikusketan parte hartu zuten herrietako ordezkariak.

### Emakumeak Expo Zaragozan

Ekainaren 14an zabaldu eta irailaren 14an itxi zuten Expo Zaragoza 2008 nazioarteko erakusketa ospetsua.

Bitarte horretan, berrikuntza iraunkortasunaren aldeko mezuarekin, munduko hainbat herrialdeetako 140 pabiloi egon ziren ikusgai, eta denak urarekin

lotutakoak. Herritik ere hainbat lagun hurbildu ziren erakusketa ikustera.

Ugarana Emakume Elkarteak bidaia antolatu zuen irailaren 8ra-

ko eta 15 laguneko taldea bildu ziren. Emakumeek Zaragoza aldean pasatu zuten eguna eta erran digutenez, egun atsegina pasatu zuten.

## NAFARROA

# laz baino 11 hildako gehiago errepedeetan uda honetan

### ttiipi-ttapa

Emaitza goibelak utzi dituzte aurtengo uztail eta abuztuak Nafarroako errepedeetan. lazko udan istripuz hil ziren kopurua ia laukoiztu egin da aurten. Nafarroako Gobernuaren arabera, 2007an lau lagun hil ziren, bi uztailean eta bertze bi abuztuan. Aurten, ordea, bederatz lagun zendu dira uztailean, eta sei abuztuan. Horreguztiak hankaz goiti utzi du Gobernuak tasa %10 murrizteko zuen asmoa. Martxoan ez zen hildakorik egon; eta maiatzean eta ekainean zazpina hil ziren. Aurten guztira 35 lagun zendu dira errepedeetan eta iaz garai berean 28 lagun hil ziren.

edredoi nordikoak  
azal nordikoak  
mantak  
maindireak  
ohe estalkiak  
albornozak  
toailak  
kuxinak  
mantelak

1951tik lentzeria etxe  
*Casa Cambre*

**MANTA ESKAINTZA**

Tafalla, 13 Iruñea - Pamplona  
948 230 634

## ZUGARRAMURDI-URDAZUBI

## Guztira 39 ikasle eta sei irakaslek hasi dute ikasturtea

Lehen baino goizago sartuko dira ikasleak, 9:10ean goizez eta 14:50ean arratsaldez

**Koro eta MARGARI**

Irailaren 5ean hasi zuten ikasturte berria Urdazubi eta Zugarramurdiko haurrek, aurtengoan ordutegi aldatzarekin, eskolara sartzeko tenorea aitzineratu egin baita.

Orain arte goizean 9:30ean eta arratsaldetan 15:20ean sartzen ziren ikasle eta irakasleak, baina hemendik aitzinera 9:10ean sartuko dira goizetan eta 14:50ean arratsaldetan. Gainera, arratsaldetan oren erdi bat lehenago aterako dira, 17:00etan beharrean 16:30ean.

Bertzalde, aipatzea da, ikasle kopurua iaizkoaren berdintsua

dela ikasturte honetan. Guztira 39 ikasle dauzke eskolan, gan den urtean lau haurrek finitu baitzuten ikasturteagure eskoletan eta aurtengoan bortz berri hasi baitira.

Hauek dira ikasle hasiberriak: Janire Agerre Etulain (Urdazubi), Ainara Hearn Mentaberri (Zugarramurdi), Alejandro Rodriguez Barangua (Urdazubi), Ane Ballarena Fagoaga (Urdazubi) eta Enara Ariztia Salas (Urdazubi).

Irakasleen aldetik, berriz, sei irakasletik bik bakarrik errepikatuko dute, eta gainerako guztiak berriak ditugu. Betiko komeria.

**Kenpo Kai berriz ere martxan**

Joan den urtean egin zen lehenbizikoz Kenpo Kai defentsa pertsonaleko arte martzialen modalitate honen ikastaroa, baina ikasturte berriarekin batera, Urdazubi eta Zugarramurdiko Kenpo Kai taldeak horretan aritzeko aukera izanen du berriz ere.

Klaseak Zugarramurdiko pilotalekuan emanen dira eta izena edo informazioa emateko telefono honetara deitu beharko da: 656 759566. Bertzenaz, e-posta honetara idatzi beharko da: *honbu@kenpokai.com*.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

**Aterpetxe berria herrian**

Uda honetan Lapiztegia karrikan aterpetxe bat egiteko lanetan hasi dira. Aterpetxe honek denetara 80 plaza izanen ditu, gehienak literekin eta horietako sei landa-etxe moduko hiru gelek. Gainera, 90 m<sup>2</sup>ko aisialdirako gela bat ere izanen du, aktibitate ezberdinak lantzeko. Kanpoan etxeko animalia ttikiekin osaturiko parkea izanen du: oiloak, lapinak, ahateak eta abar. Jardueretan aritzeko erabiltzen ahal izanen dira animaliak: bazka eman, garbitu... Kanpora irekiak egonen diren ostatua eta jatetxea ere izanen ditu, eta aitzineko aldean tranquil egoteko moduko belar soro bat ere bai terraza zerbitzuarekin. Aipatu, proiektu honek Nafarroako Gobernuak, Euskadiko Kutzak, Gazte Enpresak eta CEINek antolatutako Ideativa sarietan parte hartu zuela, eta 150 proiekturen artean laugarren saria lortu zuela. Sari hauek Nafarroa guztiko gazte saiatuei zuzendutakoak ziren eta ekainean banatu ziren. Lanak behar den bezala finituz gero, 2009ko ekainean aterpetxea irekiko da.



Grupo Tanatorio Taldea  
**IRACHE**  
Maldaerrek S.L.  
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA  
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04  
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04  
SAN PEDRO BEILATOKIA



Grupo Tanatorio Taldea  
**IRACHE**  
Maldaerrek S.L.  
Funeraria Baztan

Elizondo 948 58 19 59  
FUNERARIA BAZTAN  
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04  
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04  
LESAKAKO TANATORIOA



**Angel  
MATXIARENA ARANIBAR**

Bera/Donostian, 2008ko irailaren 6an

Gu sortu ginen enbor beretik  
sortuko dira besteak



ETXEKOAK



## EZKONTZAK

**Josu Urreaga Burgete** eta **Miren Elizondo Urrotz**, Doneztebekoak, abuztuaren 23an Donezteben.

**Pedro Telletxea Aizega** eta **Marta Margeris Rivas Salazar**, Saldiaskoa eta Doneztebekoa, abuztuaren 30ean Donezteben.

**Jose Alfonso Barbarin Elizalde** eta **Maitane Legazkue Narbarte**, Narbarte eta Zubietakoa, abuztuaren 16an Zubietan.

**Mikel Rekondo Maiza** eta **Miren Caballero Zubeldia**, Tolosakoa eta Iruñekoa, abuztuaren 12an Leitzan.

**Santiago Lizasoain Urrutia** eta **Kristina Apeztegia Andersena**, Elizondokoa eta Oronoz-Mugairikoa, abuztuaren 30ean Oronoz-Mugairin.

**Jorge Alexandre Mitxeo** eta **Maria Ibañez Arraztoa**, Iruñekoa eta Elizondokoa, abuztuaren 16an, Elizondon.

**Igor Babaze Baleztena** eta **Yolanda Salaburu Matxinena**, Zubietakoa eta Iruritakoa, uztailearen 19an, Iruritan.



## SORTZEAK

**Mikel Valverde Erasun**, Beintza-Labaiengoa, uztailearen 31n.

**Ane Trillo Goia**, Berakoa, abuztuaren 28an.

**Xiker Iantzi Errandonea**, Berakoa, abuztuaren 24an.

**Jon Goñi Otamendi**, Berakoa, abuztuaren 26an.

**Julen Goñi Otamendi**, Berakoa, abuztuaren 26an.

**Mattin Agesta Mendiburu**, Zubietakoa, abuztuaren 28an.

**Jabier Iturrarte Eslaba**, Leitzakoa, abuztuaren 21ean.

**Maialen Aioroa Errazkin**, Iturengoa, abuztuaren 31n.

**Maddalen Iratzoki Urrotz**, Etxalarkoa, abuztuaren 27an.

**Miguel Angel Zambon Romano**, Sunbillakoa, abuztuaren 27an.

**Endika Arraztoa Sarratea**, Elizondokoa, abuztuaren 22an.

**Oihana Gamio Eugi**, Iruritakoa, abuztuaren 27an.

**Ametz Agirre Sarratea**, Zozaiakoa, abuztuaren 28an.



## HERIOTZAK

**Pedro Jose Irisarri Hualde**, Elbetekoa, abuztuaren 26an, 85 urte.

**Sebastian Tirapu Gogortza**, Leitzakoa, abuztuaren 28an, 80 urte.

**Fermin Larretxea Biurrarena**, Arantzakoa, abuztuaren 29an, 95 urte.

**Magdalena Iribarren Indart**, Amaiurkoa, abuztuaren 29an, 94 urte.

**Maria Luisa Garaioa Garate**, Elizondokoa, abuztuaren 30ean, 95 urte.

**Pedro Jose Baleztena Indakoetxea**, Ezkurrakoa, abuztuaren 31n, 54 urte.

**Jose Urrutia Goñi**, Elizondokoa, irailaren 1ean, 91 urte.

**Soledad Ubiria Irigoien**, Lesakakoa, irailaren 4ean, 84 urte.

**Angel Matxiarena Aranibar**, Berakoa, irailaren 6an, 79 urte.



### Magdalena IRIBARREN INDART

Amaiurren hil zen, 2008ko abuztuaren 29an

*Udaknekoren usoen antzera joan zara eta gogorra da onartzea gehiago ez zaitugula ikusiko baina bizi garen artean ez zaitugu ahaztuko. Orain gaude ezin kontsolaturik bihotzean dugun pena Jangoikoaren altzoan har ezazu atsedena.*

**TXORIKAINEN FAMILIA**



### Raimundo PEREZ IRIARTE

Beran, 2007ko irailaren 16an

**I. URTEURRENA**

*Umorez eta alaitsu egoten ginen elkarrekin, eta oroitzapen ahaztezin horiek beti geldituko dira gurekin.*

**ZURE FAMILIA**



### Xabino LARZABAL BALERDI

Igantzin, 2007ko irailaren 19an

**I. URTEURRENA**

*Gauetz, zerura begiratzen dugunean, izar eder bat ikusten dugu. Hori zu zara, zure dizdirak indarna ematen digu aitzinera segitzeko.*

MAITE ZAITUGU.

BETI GURE ARTEAN EGONEN ZARA

**ZURE EMATZEA ETA SEME-ALABAK**

## HERRI KIROLAK

## Nafarroako Herriz Herri txapelketako bigarren konbinatuan Igantzi txapeldun

Harria jasotzen, txingak eramaten eta ingudea altxatzen nagusitu ziren igantziarrak

### tipi-ttapa

Sailkapeneko lau jardunaldi eta finala jokatu ondotik, Igantzi da aurtengo Nafarroako Herriz Herri Txapelketako bigarren konbinatuan txapelduna. Arraiozko Laxo plazan erabaki ziren txapelak irailaren 6an, herriko besten barne.

Lehendabizi lehen proba konbinatuko saioak jokatu ziren: koxkor-biltzea, zaku-eramate lasterketa, aizkora, lasterka eta arpana. Hiru talde aritu ziren lehen: Igantzi, Ultzama eta Be-

rriozar eta azken horrek lortu zuen txapela. Igantziarrak hirugarren gelditu ziren. Lehen hiru posturako lehiaren aitzinetik, laugarren, bortzgarren eta seigarren postuak erabaki ziren: Basaburua laugarren izan zen; Berako Gure Txokoa bortzgarren eta Garralda seigarren.

### BIGARREN KONBINATUAN IGANTZI NAGUSI

Bigarren konbinatuan, aldiz, igantziarrak atera zen garaile. Harria jasotzen, txingak eramaten eta ingudea al-

txatzen aritu ziren partaideak. Bigarren konbinatu hori liga sistema bidez erabaki zen, eta beraz, Arraiozko denborak ordura bitarteko saioetan lortutako denborei gehitu zitzaizkien. Guztira, denbora hobereina egin zuen taldea Igantziko taldea izan zen; Basaburua bigarrena sailkatu zen eta Garralda hirugarren.

Laugarren postuan Ultzama sailkatu zen, Berriozar bortzgarren eta Berako Gure Txokoa seigarrena izan zen sailkapen nagusian.



ARGAZKIA: ARANTXA ARIZTEGI

Igantziarrak ingudearekin ongi moldatzen direla erakutsi dute behin eta berriz. Argazkian Xabi Sein ageri da, Iruñeko Sanferminetan jokatutako txapelketan Nafarroako irabazle izan zen.

## Euskal Herriko Txinga Eramate Txapelketan Esther Iriarte eta Migel Anjel Sukuntza nagusi

Iriartek Nafarroako marka hobetu du

### tipi-ttapa

Esther Iriarte narbartarra eta Migel Anjel Sukuntza leizarra dira aurtengo Euskal Herriko Txinga-Eramate Txapelketako txapeldunak, emakumezkoetan eta gizonezkoetan.

Abuztuaren 31n Arzurin (Nafarroa) jokatutako jardunaldian, Iriartek 30 plaza egin zituen 25 kiloko txingak esku banatan zituela, eta jaun eta jabe dela erakutsi

zuen. Bigarren sailkatu zen Xanta Sousa lesakarrari bortz plazako alde atera zion. Finalean aritu ziren bortz emakumezkoen artean, Estibaliz Almandoz lesakarra izan zen eskualdeko hirugarrena. Sailkapen nagusian bortzgarren gelditu zen.

Euskal Herri mailako txapela janzteaz gain, Nafarroako emakumezkoen marka hobetu zuen Iriartek, Ainhoa Mazkia-

ranek 2005ean 26 plaza eginez ezarritako marka, hain zuzen.

Gizonezkoetan, berriz, garaipena Leitzara joan zen. Migel Anjel Sukuntza izan zen eskualdeko bakarra, eta esku bakoitzean 50 kiloko txingak zeramatzala 20 plaza eta 4,44 metro egin zituen, txapela erdietsiz. Bigarren sailkatu zen J. J. Agirregabiriari (Deba, Gipuzkoa) plaza bat eta erdiko alde atera zion.



ARGAZKIA: ARANTXA ARIZTEGI

Sasoian dago Esther Iriarte, Iruñeko Sanferminetan ere Nafarroako txapela jantzi baitzuen.

## FUTBOLA

# Gure Txokoak irabazi du Jon Irazokiren omenez jokatu den XIII. memoriala

Penaltietan erabaki zen lehenbiziko postua

## ttipi-ttapa

Aurtengo txapelduna etxeko taldea da, Bera-ko Gure Txokoa, alegia. Abuztuaren 30ean Jon Irazoki zenaren omenez jokatu zen XIII. memorialean bera izan zen nagusi. Matxada futbol-zelaian jokatu zen partida, eta eskualdeko talde nagusietako hiru aritu ziren: Baztan; Doneztebe eta Gure Txokoa.

Lehenbiziko partidari Doneztebe eta Gure Txokoa aritu ziren lehian, eta Malerrekakoek 1 eta 0 irabazi zuten; bigarren partida Doneztebe eta Baztanek jokatu zuten eta honetan Baztan al-



ARGAZKIA: JOSEMARI TELLETXEA

**Ezkerretik hasita, Baztan, Doneztebe eta Gure Txokoako kapitainak euren trofeoak eskuartean dituztela.**

dera joan zen garaipena, 0 eta 1. Arratsalde-

ko azken partida Gure Txokoak eta Baztanek

jokatu zuten, eta honetan, beratarrantzat izan

zen garaipena, 1 eta 0eko markagailuarekin. Beraz, talde bakoitzak partida bana irabazita, penalti bidez erabaki behar izan zuten garailea.

Penaltietan Gure Txokoak asmatu zuen, eta garaipena berak eskuartu zuen; bigarrenak Doneztebe taldekoak gelditu ziren eta Baztan hirugarren sailkatu zen.

Partida entrenigarriak jokatu zituzten, eta denboraldi hasiera izaki, jokalariek %100ean ez zeudela ikusi zen. Partidaren ondotik sariak banatu zituzten, eta segidan luntxa izan zuten Gure Txokoa Elkartearen.

## AIZKORA

# Oihan Larretxeak marka guztiak hobetuta irabazi du III. Mailako Nafarroako Aizkora Txapelketa

laz Erasunek ezarritako marka erraz gainditu du

## ttipi-ttapa

Oihan Larretxea beratarrek marka guztiak hobetu eta bereganatu egin du Nafarroako III. Mailako Aizkora Txapelketa. Irailaren 7an jokatu zen finala Oitzen, eta beratarrek jaun eta jabe dela erakutsi zuten.

Txapela janzteaz gain, III. mailako marka hobetu zuen Larretxeak; iaz Ander Erasunek

8:39ko denbora eginez ezarritako marka bi minututan hobetu zuen. Finalan aritu ziren bertze bortz aizkolariek ere hobetu zuten iazko marka.

Aizkolariek bakoitzak lau enbor ebaki behar izan zituzten: bi kanaerdiko eta bi 45 ontzako eta beratarrek 6:39ko denbora egin zuten. Bigarren sailkatu zen Patxi Mindegia zubietarrak 7:01eko den-

bora egin zuen.

Raul Kastro urroztarrek 7:28an akitu zituen lanak; Ruben Saralegi (Iruñea) laugarren gelditu zen 7:52ko denbora eginez eta Berriozarko Julen Kañamaresek 8:30ean ebaki zituen enborrak.

Lehen bi sailkatuak, Larretxea eta Mindegia, bigarren mailan ariko dira heldu den urtean.



ARTXIBOA

**Oihan Larretxea Donato aita laguntzaile duela.**

# AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) (agenda)

## OSPAKIZUNAK

### SENPERE

Buruilaren 21ean, Kantu Xaharren Eguna.

### ELIZONDO

Irailaren 21ean, Artzain Eguna. Xehetasun gehiago 25. orrialdean.

### IGANTZI

Irailaren 21ean, Artzain Zakur Lehiaketa, 16:30ean.

## IKASTAROK

### LESAKA

Urriari, enpresa bat sortu eta hura bideragarria izaten laguntzeko tailerrak. Xehetasunak 8. orrialdean.

### ELIZONDO

Urriaren 28tik otsailaren 24ra, asteatero eta arratsalde, 5 eta 14 urte bitarteko haurrentzako plastika ikastaroa Arizkunenean.

## ERAKUSKETAK

### ELIZONDO

Irailaren 17a arte, Xabier Mendiorozen akuarela erakusketa Arizkunenean. Astelehenetik larunbatera 18:00etatik 21:00etara.  
Irailaren 25etik urriaren 2ra, *Beraien begiraden mundua* izeneko argazki erakusketa Arizkunenean. Astelehenetik larunbatera 18:00etatik 21:00etara.  
Irailaren 19tik urriaren 11ra, Ander Olaizolaren argazki erakusketa Arizkunenean. Astelehenetik larunbatera 18:00etatik 21:00etara.

### AMAIUR

Irailaren eta urriaren, Amaiurko monolitoaren 25. urteurrenaren harira, oroitzapenezko erakusketa Amaiurko Serorategian.

## TELEBISTAKO TXOKOA



# Igantzik San Migelek itxiko dute 'Bestaz Besta' saioa

BERTZETIK, NUTRIZIO SAIOA ESTREINATU DA

Doneztebeko bestekin hasi zuen **TTIPI-TTAPA TELEBISTAK** urteroko *Bestaz Besta* saioa. Hortik aitzinera herriz herri ibili ziren bestetako momenturik atseginenak bilduz. Orain Igantzik San Migel bestekin ekinen dio telebistako lantaldeak *Bestaz Besta* saioari. Bertzalde, aipatu, Doneztebe, Lesaka, Bera, Sunbilla, Arantza eta Etxalarko besteak —eta laster Igantzikoak— DVD-ak salgai daudela. Interesatuak 948635458ra deitu beharko dute.

### NUTRIZIO SAIO BERRIA

Iragarri bezala, **TTIPI-TTAPA TELEBISTAK** *nutrizio* saio berria estreinatuko du hurrengo honetan. Sandra

Legasa Lesakako Oreka belar-dendako eta Lorea Agirre Doneztebeko Kimetz belar-dendako dietistek *nutrizio*aren inguruko gomendioak emanen dituzte asteazkenero, 20:00etako albistegiaren ondotik. Biharamunean eguerdian emanen da errepikapena. Gainerakoan, astelehenetan *Jokoa Solas* eskainiko da; asteartetan 17:00etan *Marimore* haurrentzako saioa eta ilunabarreko albistegiaren ondotik *Kontu Kontari* adinekoekin egindako solasaldiak; asteazkenetan *Eltze berosu* kaldeko txokoa eta *nutrizio* saioa; ortzegunetan *Zentzuz kontsumitu* saioan kontsumitzaileentzako aholkuak eta ortziraletan *erreportajea*.

## DISKAK



EusCat

TRIKIZIO

BAGA-BIGA, 2008

Trikizio taldea Euskal Herriko plaza-talde bat da eta *EusCat* diskoarekin bi kultura senidetu nahi ditu: Euskal Herria eta Katalunia. Horrretarako bi herrialde hauetako kanta eta artistarik ospetsuenetarikoa batu dira, Euskal Herria eta Kataluniaren artean beti egon delako harreman kultural estua. Trikizio ere azken urtetan aunitz dabil Katalunia aldean eta hala, bi herrien arteko lotura musikala islatzeko proiektu hau argitaratu du: *M<sup>3</sup> Merce* (Pomada), *Jo Ta Ke* (Su Ta Gar), *Perque Vull* (Ovidi Montllor), *Esaiok* (Hertzainak, euskaraz eta katalanez), *La Gallineta* (Lluís Llach, euskaraz eta katalanez), *Martxa* baten lehen notak (Mikel Laboa), *Sarri-sarri* (Kortatu), *Festa si, lluita tambe* (Inadaptats), *Caça de Bruixes* (Obrint Pas), *El cant dels maulets* (All Tall), *Nere ametsa* (Kaxiano).

## BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (abuztuaren 29tik irailaren 5era bitarteko prezioak)



### ZERRIKIA

**Zerrikumea**  
(19 kilo): 27,00 € (=)

**Zerri gizena**  
1,310 € kilo. (=)

**Zerramak:**  
0,600€ Kg/bizirik. (+0,050)



### BEHIKIA

**Aretze gizenak:**  
**Idixkoak:** €/kg. Kanal  
**Extra** 4,01 (+0,06)

**1.koa** 3,71 (+0,06)

**2.koa** 3,02 (+0,06)

**Urruxak:** €/kg. Kanal

**Extra** 4,11 (+0,06)

**1.koa** 3,81 (+0,06)

**2.koa** 3,12 (+0,06)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

**Aretze ttikiak**  
(15 egun ingurukoak):

**Aretze mestizoak:**

urruak 130,00 (=)

idixkoak 168,00 (=)

**Aretze nabarrak:**  
urruak 108,00 (=)  
idixkoak 130,00 (=)

**Zaldikoak:** €/k

Sortuberriak: 3,10/3,20

Zaldi-behorrak: 1,73/1,93

**Bildotsak:** €/k

6-8 kilokoak: 7,60/8,40

8-10 kilokoak: 6,60/7,10

### JAKIN BEHARREKOAK

# Etxebizitzaren prezioei aitzin egiteko modua errentan hartzea dela dio Irachek

Errentan hartu eta emateko hainbat aholku luzatu ditu

Etxebizitzak dau-  
de merke, eta guraso-  
en etxetik alde egin  
nahi duen gazteentzat  
ere ez da erraza etxe-  
bizitza bat eskuratzea.  
Horri, gainera, interes  
tipoen igoera gehitu be-  
har zaio. Egoera zein  
den ikusita, Irache Kon-  
sumitzaileen Elkarte-  
ak etxebizitza errentan  
hartzearen alde egitea  
aholkatu du. Europar  
Batasunean, errentan  
hartzen diren etxebizi-  
tzaren parkea guztia-  
ren %30a da, eta Na-  
farroan eta estatu es-  
painiarrean, aldiz,  
%10aren azpitik dago.  
Irailean, ikasleak ikas-  
turteari ekiten diotela-  
ko, errentan hartzen di-  
ren etxebizitzaren kopu-  
ruek hazi egiten da. Hor-  
taz, Irachek gomendio  
batzuk luzatu ditu:

**- Kontratu sinatu.** Legearen arabera, ez da nahitaezkoa kontratu idatziz sinatzea, baina segurtasunagatik eta erosotasunaga-



Etxebizitzen merkatua hagitz garesti dago.

tik idaztea komeni da, eta bialdeek sinatzea.

**- Bortz urteko iraupena, salbuespenak tarteko.** Bi aldeek sinatu dutenaren arabera izanen da kontratuaren iraupena. Baina sinatu ez badute, urtekoa izanen dela ulertuko da. Halere, iraupena sinatu ez bada edo sinatuta ere, bortz urte baino guttiagoakoa adostu bada, ohiko kontratuaren maizterrak kontratu urteka bortz urte bitar-

te luzatzeko aukera du. Salbuespen kasurik ere bada, baina horretarako nagusiak kontratuaren adierazi behar harko du.

**- Ura, argia eta telefono kontratuaren titulartasuna aldatu.** Hartara, arazoren bat balego, maizterra izanen da erantzule.

**- Guttienez hila-bete bateko fidantza.** Maizterrak eskudiruzko ordainketak egin behar dio, guttienzez hila-beteko ordaindu be-

harko duen adinakoa.

**- Banku-abala eskatu.** Gero eta ohikoago bihurtu da maizterrarik banku-abala eskatzeko ohitura, hila-bete batzuek edo urtebetez ordaintzeko gai dela ziurta dezan.

**- Errenta, KPIren arabera.** Errenta alde biek sinatu dutenaren arabera izanen da, baina ohiko kontratuaren, lehen bortz urteetan, errenta KPI (Kontsumo Prezioen Indizea) gorabeheraren arabera gaurkotu daiteke.

**- Mantentze lanak, nagusiaren gain.** Etxeak behar dituen konponketak nagusiak ordaindu behar ditu, baita aldaketa tikiak ere: entxufeak eta bonbilla aldatu...

**- BOE ere errentan.** Babes Ofizialeko Etxebizitzak errentan eman daitezke, baina kasu bakoitza ongi aztertu behar da.

### LIBURUAK



Oraina galdua

**Juan Ramon MAKUSO**  
EREIN

«Gutun luzea Anxiok igorri didana. Bat-batean ideia hau etorri zait: eta zein azalpen eman behar du gizakiak ez bada hitzez, lengoiaren erreinuaren magalean erorita gaudenean? Hitzetan behar bada gordetzen da gizakiaren ezintasuna. Adierazpenak hitzen beharra du. Eta gizakia, Anxio, hitzen gaitibu da bere baitan. Baina gizakiak askatasuna lortu zuen hitzen bitartez. Naturatik ihes egin zuen gizakiak hitzen altzora hurbildu zenean, eta li-

lura baino ez zitzaion sortu: hitza! Eta lilurak harriduraren bidea hartzen du eta hortik aitzinera hitzak eraiki du gure eta errealtatearen arteko zubia. (...) Baina (...) sortzearen prozesuan batasun hori apurtzen da. Gizakiak hitzezko erai-kuntza –poesia– sortzen duenean ere apurtzen da giza-kiaren batasuna (...).» Idazleak «solosaldi platonikoa» deitu duen argitalpena da liburu hau, Juan Ramon Makuso poeta eta filosofoak idatzia.

# AGENDA egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net) (agenda)

#### BESTAK

##### SENPERE

**Buruilaren 26tik 30era,** Ibarrin auzoko bestak.

##### ANIZ

**Urriaren 4tik 6ra,** Anizko bestak. Xehetasun gehiago 30. orrialdean.

##### URROTZ

**Irailaren 26tik 30era,** San Migel bestak. Xehetasun gehiago 16. orrialdean.

##### IGANTZI

**Irailaren 26tik 30era,** Sanmigel bestak. Xehetasunak erdiko gehigarrian.

##### DONEZTEBE

**Irailaren 19tik 21era,** besta tikiak. Xehetasun gehiago 17. orrialdean.

#### KONTZERTUAK

##### LESAKA

**Irailaren 19an,** Jabier Muguruzaren kontzertua Onin errekararen gainean, 22:00etan.  
**Irailaren 20an,** The Cheese Poofs taldearen kontzertua Onin errekararen gainean.

#### HITZALDIAK

##### ELIZONDO

**Irailaren 18an,** Jabier Zigaren bizitza eta lanei buruzko hitzaldia eskainiko du Pello Fernandezek. 19:30ean Jorge Oteiza Etnografia Museoa.  
**Irailaren 19an** Ziga maisua bere ikasleen begietan hitzaldia eskainiko du Jabier Zubiaurrek. 19:30ean Jorge Oteiza Etnografia Museoa.  
**Irailaren 20an** Ziga eta Salaberria: euskal pinturaren bi joera sortzaile izeneko hitzaldia eskainiko du Urkiri Salaberriak. 19:30ean Jorge Oteiza Etnografia Museoa.

00-34 948 63 54 58

Sail honetan iragarkia jartzeko 8 € ordaindu behar da.  
 Ttipi-tpa telebistan ere agertuko da  
 (nahi izanez gero argazkiarekin).  
 8 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu.

## ...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuak berri ematen da. Ttipi-Ttpa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

### ETXEBIZITZAK

101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

### GARAJEAK/LOKALAK

107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

### LURRAK/ORUBEAK

112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

### ZERBITZUAK

201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

### LANA

301. Eskariak
302. Eskaintzak

### IRAKASKUNTZA

401. Eskaintzak
402. Akademiak

### MOTORRA

501. Salerosketak
502. Tailerrak

### ANIMALIAK

601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

### DENETARIK

701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

### HARREMANAK

801. Agurrak

## ANZABAL INMOBILIARIA

### BAZTAN, BIDASOA, ULTZAMA ETA IPARRALDEAN.

- Pisuak, apartamentuak, partzelak, baserriak, bordak, lokal komertzialak eta nabeak salgai.

### IPARRALDE ETA BIDASOA ALDERDIETAN.

- Eskaintzagatik baserriak, bordak eta lurak behar ditugu.

### ZUGARRAMURDI.

- Baserria salgai 80.000 metro<sup>2</sup>ko lur eremuarekin.  
- Etxe adosatuak bere lurarekin salgai.

Tel. 948 580 804

Faxa. 948 581459

anzabal@anzabal.com

## Baztango promoción inmobiliaria

### Etxebizitzaren errehabilitazioa Tasazio eta balorazioa

### Ondasunen salmenta eta alokairua

### Abokatua:

- Proiektu urbanistikoak
- Lurzoruaren gestioa
- Herentziak

Tfn. 948 630552  
Faxa 948 630106

Kattonberri karrika, 4  
31780 Bera. Navarra

DONEZTEBE. ZAZPIGURUTZE  
PLAZAN 115 m<sup>2</sup>ko PISUA SALGAI.  
3 LOGELA, 2 BAINUGELA ETA  
TRASTELKUA. EGUZKITSUA ETA  
ESTREINATU GABEA.


630 948271

harbertitua, 2 solairu eta lokal komertziala. Merkatarien Karrika 27. Zuzenean promotoratik. ☎607 978656.



### ETXEBIZITZAK 101 Saldu

LESACA. 229 m<sup>2</sup>ko familia bakarreko etxearen proiektua, lurrarekin eta lizentziarekin salgai. Eredu urbanizatua pira, argia, urzikinen putzua... Promotorerik interesatua egonez gero, permutarako prest. 40 milioi Pta. ☎678 526091.



### DONEZTEBEINGURUAN.

Etxe adosatu polita salgai. Sartzeko prest. ☎666044176.

DONEZTEBE. 100 m<sup>2</sup>ko pisua salgai Zazpigorutze auzoan. ☎639 184210.

BERA. Pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, igogailua eta apartakalekua. ☎606 586709.

LESACA. Herri erdian 110 m<sup>2</sup>ko pisua salgai. Bista onak. Prezioaz solastuko dugu. ☎607 769519/670 319380.

ZUBIETA. Baserria salgai. Etxebizitza berritua, herrikanpo eta bide txararakin. ☎650 714030.

BERTIZARANA (Narbarre kanpoan). 3 logelako pisu mobleztatua salgai, lurreko suarekin eta 175 m<sup>2</sup>ko lur eremu prestatuarekin, fruta-arbolak, etxetxo bat ura eta argiarekin. 180.400 euro. ☎637 153329.



ARANTZA. Bibizitzako etxea salgai, egoera onean. Prezio negoziagarria. ☎630 388154.

DONEZTEBE. Pisua salgai. 156.000 euro (26.000.000 pta). ☎607 978656.

LESACA. Herrigunean 168m<sup>2</sup>ko etxebizitza adosatu salgai, eta 52m<sup>2</sup>ko beheko solairua. ☎646 121536.

DONEZTEBE. Etxebizitza independentea salgai, za-

GAZTELU. Pisua salgai. 2 logela, egongela, sukaldea, komuna eta trastelekua. Prezio onean. ☎620 345175.

### ETXEBIZITZAK 102 Erosi

ESKUALDEAN. Borda bat erosiko nuke, lur eremuarekin. ☎685 734971.

### ETXEBIZITZAK 103 Errentan eman

IRUÑA. Neska bat nahi da logela bat errentan hartzeko Alde Zaharrean. Ekonomikoa. ☎661 071618.

ELGORRIAGA. Pisua baraztarekin errentan emateko. ☎948 450432 (arratsaldean).

### GARAJEAK/LOKALAK 107 Saldu

DONEZTEBE. 70 m<sup>2</sup>ko lokal salgai. Prezio negoziagarria. ☎620 011242.

LESACA. Kuttuna denda traspasatzen da. ☎948

637563.

LESACA. 20 m<sup>2</sup>ko lokal komertziala salgai. Albistur 43. ☎659 609678.

LEITZA. Herri erdian 92m<sup>2</sup>ko lokal salgai edo errentan emateko. ☎948 510122 / 977 793681.

### GARAJEAK/LOKALAK 109 Errentan eman

LESACA. Bittiria karrikan lokal errentan emateko. Ostatu edo soziedade bezala erabiltzeko egokia. ☎654 931531 / 948 637263 (18:00etatik aitzinera).

LESACA. Albistur karrikan lur azpiko garajea errentan emateko. ☎618 962937.

LESACA. Garajea eta trastelekua errentan emateko. Antoiu 25. ☎948 637366.

### LURRAK/ORUBEAK 112 Saldu

ITUREN. 2.000 m<sup>2</sup>ko lur eremu eraikigarria salgai. Leku onean. ☎676 013103.

ARIZKUN. 1.654 m<sup>2</sup>ko eta 1.816 m<sup>2</sup>ko bi lursail salgai, herrigunean. ☎636 408925.

### ZERBITZUAK 205 Zurginak

## ARANTZA Zurgindegia.....

· Klase guzietako zurgin lanak  
· Eskatu aurrekontuak konpromisorik gabe

Joxe Miguel Errandonea  
Tel: 948 634 068 - 647 810 144  
Gorritibaita - ARANTZA

### ZERBITZUAK 208 Bertzelakoak

ROSA BELZUNEGI  
PSIKOANALISTA  
Kontsultarako eskatu ordura  
☎ 948 272011 (IRUÑA)  
☎ 948 580975  
Jaime Urrutia 42-2.D - ELIZONDO



**SANTESTEBAN Tailerrak**



RENAULT

Clio Segurua DOHAIN 1go urtean.

**ESKAITZA ZABALA**  
Kotxe ia berrietan (6-12 hilabeteako kotxeak):  
Clio, Modus, Kangoo, Megane, Scenic, Laguna, Espace  
Leitzako bidea • DONEZTEBE • Tfnoa: 948 450 282 • 948 450 597

### LANA 301 Eskariak

**Esperientziadun emakume bat** Irundik Doneztebera bitarteko herrietako jate-txe edo ostatueta zerbitzari lanetan ariko litzateke. **620 036655.**

**Argintzako lanak** eginen nituzke. **688 688308.**

**BORTZIRIAK, BAZTAN** edo **MALERREKAN**, emakume batek zerbitzari lanetan edo haurrak zaintzen lan eginen luke. **671 485314.**

**BERA**n emakume bat lan bila dabil. **636 664577.**

**Emakume euskaldun** batek goizez lan eginen luke. **948 592469.**

### LANA 302 Eskaintzak

**ETXALAR.** Etxalarko Benta hotelean harreragilea behar da. Euskara, frantseza, gaztelania eta ingeleza beharrezkoak. Hitzordua eskatu. **948 635000.**

**LESAKA.** Zerbitzari euskalduna behar da Atxaspian ostatuan. **948 637536.**

**BERA.** Igeltsero ofiziala behar da. **617 755392 (18:30etik aitzinera).**

**ZUGARRAMURDI.** Ansalas ostatuan neska bat behar da barran aritzeko. Euskara eta frantsesa dakizkiena. **948 599082.**

**BERA.** Ibardingo Benta Migelen laguntzailea behar da sukaldean. **948 631394.**

**OIEREGI.** Bertizko Natur Parkeko Turismo Bulegoan langilea behar da. Bidali curriculum: Bertizko Natur Parkea, 31720 Oieregi edo *ostaitz@yahoo.es*. Informazioa: **948 592421.**

**Gasolindegian batean** langilea behar da. **948 631370 / 629 083567.**

**BERA.** Haur bat zaintzeko pertsona bat behar da. **607 410499 (15:30etik aitzinera).**

**BERA.** Emakume euskalduna behar da astean bi egunez etxe bat garbitzeko. **618 963424.**

### MOTORRA 501 Salerosketak

**Xsara HDI 1.9-90** zaldi salgai. Egoera onean, 2004ko urrikoa. **650 948330.**

**Iveco Stralis 480** kamioia salgai. 5 urte. Garraio txartelarekin. **948 630946 - 619 317168.**

**Toyota Corolla** autoa salgai, 5371 BKT matrikula. Granate kolorea. 205.000 km. Errebisioa pasatu berria. Gurpilak aldatuak. **948 638064.**

**Rieju RR motorra** salgai, beltza eta 50 cckoa. Egoe-

ra onean eta zortzi hilabete-ko garantiarekin. **626 097128.**

**Seat Ibiza 1.4** autoa salgai. 2007ko urrikoa, 17.000 km. **699 112081.**

**Peugeot Expert HDI** autoa salgai. 6 urtekoa, 100.000 km. Lanerako aproposa. 7.500 euro negoziagarriak. **699 509003.**

**Yamaha R1** motorra salgai, 2005ekoa. **696 974 454.**

### MOTORRA 502 Tailerrak

**GANIX**  
TAILERRA  
Ibilgailuen mekanika eta elektrizitatea  
BERA FIAT zerbitzua  
Iturlandata, 9 - Tel: 948 630 669

### MENDAUR MOTOR 948 450333 • DONEZTEBE

**SUZUKI**  
(gasolina eta diesela)  
**MITSUBISHI**  
(luze eta laburrak)  
**TURISMOAK**

### ANIMALIAK 602 Salerosketak

**Border Collie** arrazako bi zakurkume salgai. **687 544646 / 948 451832.**

**Ehizako zakurkumeak** salgai. Sabueso eta Gasakuñako grifoi urdinaren arteko nahasketa. Hilabete batekoak. **626 408728.**

**Setter ingeles** arrazako hiru hilabeteko zakurkumeak salgai. **618 962663.**

**Ahari mutur gorria**, adarri gabekoa salgai. 6 urtekoa. **677 959534.**

**5 urteko zaldia** eta urtebeteko bi moxal salgai. Monturakoak. **699975403.**

**Katu persa** salgai, urtebetekoa. **615 782292.**

**Villano de las Encarta-**

**ciones** arrazako zakurkumea salgai. Betizuak biltzeko eta basurde ehi-zarako egokia. **667 702267.**



### DENETARIK 701 Galdu/aurkituak

**BERA.** Euskalduna jate-txearen inguruan katu gris aurkitu da. **647 084573.**

**ELIZONDO.** Uztailaren 26an argazki kamara digitala galdu zen. Argazkiak balore sentimental handikoak dira. **660 984211.**

Goizuetara doan errepidean, baserri bateko sarreran, Gaztelu Otxandorena, Bixente izena duen txartel bat aurkitu da. *inor861@yahoo.es* edo **606 552845.**

**BERA.** Bestetan lepoko katea galdu da. Alejo eta odol taldearen izenak daramatza. Aurkitzen duenak eskupekoa

jasoko du. **948 627627.**

### DENETARIK 702 Salerosketak

**Ostatuko mahai eta aulkiak** salgai. Egoera onean eta berriak. Elkartetxe txokoetarako egokiak. **619 913375.**

**Pressing Catch** ikuskizuna ikusteko 2 sarrera salgai. Urriaren 26an Iruñeko Anaitasuna pabilioan izanen da, 19:30ean. **619 913375.**

3 urte dituen **kutxa erregratzailea** salgai. Egoera onean. **619 973375.**

Surako **pago egurra** puskatua salgai. **626 220121.**

### DENETARIK 703 Bertzelakoak

**EURODISNEY.** Helduentzako sei txartel eta haurrentzako bertze sei txartel oparitzeko. Irailaren 1etik urriaren 19ra balio dute. **948 637050 (deitu bulego orduetan).**

**Kalefakzioko kaldera** salgai, gas propanokoa. 8 bat erradiadore eta ura berotzeko balio duena. **638 236161.**

**MERKATU TTIKIA**



zure iragarkia 3 tokitan  
**Aldizkaria**  
**Telebista**  
**Internet**  
**8€**  
ttipi-ttapa • 948 635 458 • www.ttipi.net

Argazki soila: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,31€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)



**NAHIA IRIGOIEN PEREZ** etxalartarrak 16 urte beteko ditu irailaren 28an. Zorionak familiaren partetik.



**Arantzako INHAR MAIZ FERNANDEZ**ek 4 urte bete ditu irailaren 4an. Zorionak eta muxu bat Arantzako familia guztiaren partetik.



**SONIA LIZARDI** arantzarrak 24 urte beteko ditu urriaren 1ean. Aunitz urtez eta muxu haundi bat gure sokatiratzailerik hoberenari!



**AINARA ARANDIA ELIZONDO** 3 urte bete ditu irailaren 15ean. Zorionak Arantzako atautxi eta amatxiren partetik. Hiru muxu haundi.



**AINARA ARANDIA ELIZONDO.** Zorionak etxeko panpoxari irailaren 15ean 3 urte bete dituelako. Hiru muxu aita, ama eta Aimarren partetik.



**KEMEN ANSALAS ARBURUA.** Zorionak sagutxo irailaren 12an hiru urte bete dituzulako. Muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



**MIKEL INDABURU LOIDI** etxalartarrak irailaren 17an 7 urte eginen ditu. Zorionak familia guztiaren partetik.



Amairuko bi deabru txiki hauek irailaren 1ean eta 15ean 3 urte bete dituzte. Zorionak Urki eta BEÑAT!




**INAKI ITURRIA** beratarrek irailaren 29an urteak beteko ditu. Zorionak Julen, Nahia eta familia guztiaren partetik.



**AIORA ITURRIA OTXANDORENA** arantzarrak 4 urte bete ditu irailaren 13an. Aunitz urtez baserriko familiaren partetik.



**NAIARA ARRIETA** donamariarrak 8 urte egindatu irailaren 5ean. Zorionak sorginlore familia guztiaren partetik. Muxu haundi bat.



**AIMAR ETXEBERRIA** donamariarrak 3 urte beteko ditu irailaren 17an. Zorionak familia guztiaren partetik gure mutiko haundiari.



**AIMAR ETXEBERRIA CASTEIG** beratarrek irailaren 17an 3 urte beteko ditu. Zorionak atxa, ama eta Ekaireren partetik. Binakokian jotasean ariko al gara? Muxu haundi bat bihurri begi urdin.



**EIDER GOIZUETA BARRIOLAK** 3 urte bete ditu irailaren 12an. Zorionak eta muxu pila bat maitasunez familia guztiaren partetik. Ondo pasa eguna eta segi beti bezain zoriontsu.



**ANDER GOIZUETA BARRIOLAK** 7 urte beteko ditu irailaren 23an. Zorionak eta muxu pila bat maitasunez familia guztiaren partetik. Ondo pasa eguna eta segi beti bezain zoriontsu.



**LEIRE BERAU ETXEBERRIAK** 4 urte bete ditu irailaren 13an. Aunitz urtez eta muxu haundi bat familia guztiaren eta berexiki Aneren partetik.




**ANE BERAU ETXEBERRIAK** 8 urte beteko ditu irailaren 28an. Aunitz urtez eta muxu haundi bat familia guztiaren eta berexiki Leireren partetik.



**MADDI ARIZTEGI ANTXORDOKI.** Zorionak Sorgintxo! Hagitz ongi pasa zure eguna. Muxu pila bat ataxi-amatxi, osaba-izeba eta lehengusuen partetik.



**MADDI ARIZTEGI ANTXORDOKI** gure printzesak irailaren 14an 3 urte bete ditu. Zorionak eta muxu erraldoi bat Leire, ama eta atarren partetik.



**IRAIA ETXARTE TELLETXEAK** 3 urte bete ditu irailaren 13an. Zorionak gure mononari!



**IRAIA ETXARTE TELLETXEA.** 3 urte bete ditu sorgintxo honek! Ongi pasa eguna!



**ENEKO IRIARTE ITURZAETA** arizkundarrak urteak bete ditu irailaren 14an. Aunitz urtez eta muxu haundi bat etxekoen partetik. Gero arte! Letxuga eta tomate!



**AIORA APEZTEGUI ETXEBERRIA** goizuetarrak 4 urte beteko ditu irailaren 24an. Zorionak eta muxu pila bat aitaxo eta amaxoren partetik.



Zorionak Elizondoko **AINHOA BALLARENARI** irailaren 20an 4 urte beteko dituelako. Muxu bat aita, ama, Amaia eta Arraioz eta Donamariako familia.



**ROSARIO MONAKO** leitzarrak urteak bete ditu irailaren 6an. Aunitz urtez eta besarkada haundi bat Auritzko familiaren partetik. Berexiki muxu haundi bat Ekiñeren partetik.



**Aresoko IROITZEK** urteak bete ditu irailaren 6an. Zorionak amofia, Aresoko izeba-osaba eta lehengusuen lehengusuen partetik. Segi beti bezain polit!



**CARLOS** eta **ANDRES OSTIZ** doneztebarrek 8 urte beteko dituzte urriaren 2an. Zorionak eta muxu asko Josunerren partetik. Egun ona pasa!!



**IGOR PORTU JUANENAK** urteak bete ditu irailaren 16an. Muxu eta besarkada haundi bat familiaren partetik. Maite zaitugu.



**JON MIKEL GAZTELUMENDI** sunbildarrak irailaren 29an 6 urte beteko ditu. Zorionak txapel-dun! Muxu bat Zaira, atxa eta amaren partetik.

**ZORIONTZE  
ERRAZA DA**

[www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)

**Animatu**

deskontuak  
DENDA HAUTAN EROSTEAGATIK



POTTOKI Haurren denda • ELIZONDO  
%5 oparitzeko artikulu ttikietan



MARICRUZ Lenceria • ELIZONDO  
%10eko deskontua, 30€tik gorako gastuan



MAIMUR Liburu-denda • LEITZA  
%10 oparitzeko artikuluetan



OSTARGI Optika • BERA  
%10eko deskontua, 30€tik gorako gastuan



MENDAUROS Pentsuak • DONEZTEBE  
% 5eko deskontua (zakurrena, katuen...)

**SARIDUNAK:**

- 1 6 liburu (Elkar):  
Amagoia Susperregi (Lesaka)
- 2 KAO Sumendiko Sekretua PC-ROM:  
Jose txo San Juan Irazoki (Bera)
- 3 Argiako Naturpolis mahai-jolasa:  
Leire Portu (Lesaka)  
  
Argia aldizkariaren 2 kamiseta:  
Jon Mitxelorena (Etxalar)  
Amaia Arretxea (Sunbilla)
- Argia aldizkariaren 2 harpidetza:  
Ainhoa Arozena (Bera)  
Axun Artieda (Bera)
- 4 Euskal jolasen bilduma (Urtxintxa):  
Ainara Mindegia (Aurtitz)
- 5 Txapela Buruan 2 kamiseta:  
Julen Zubieta (Lesaka)  
Aitor Arotzena (Lesaka)
- 6 Oninart 2 kamiseta:  
Marian Irazoki (Bera)

SENDAVIVA 4 sarrera  
Joseba Olagarai (Etxalar)

AQUARIUM 2 sarrera  
Katalina Alduntzin

ORAIN [www.ttipi.net](http://www.ttipi.net)  
bitartez ere parte har dezakezu. Animatu!



**ttipi txartela** rekin  
*beti irabazten da!*

**11 zozketa**

PARTE HARTZEKO deitu  
astelehenerik ostiralera  
09:00-16:00 Tel: 948 63 54 58

**1 EUSKAL MUSIKA**  
RUPER ORDORIKA  
KEN ZAZPI  
MIKEL LABOA  
OSKORRI  
Lote 1  
ekar fundazioa  
[www.elkar.com](http://www.elkar.com)

Argitxo  
Kriseiluaren bila  
**MAHAI-JOLAS**  
Lote 1  
2  
Hostelen Elkartea  
[www.ikastola.net](http://www.ikastola.net)

**3 MARTIKO PRODUKTUAK**  
Lote 1  
[www.martiko.com](http://www.martiko.com)

**4 NAFARROA OINEZ**  
Lote 1  
Kamisetak • agenda  
kalitua • karroigilua  
pila • gitarra  
xagu-argitxo  
guztiak  
[www.nafarroaoinez.net](http://www.nafarroaoinez.net)

**5 Txapela Buruan**  
KAMISETA  
2 Lote  
[www.txapelaburuan.com](http://www.txapelaburuan.com)

**6 oninart.com**  
BI KAMISETA  
Lote 1  
[www.oninart.com](http://www.oninart.com)

**ttipi saskia** TTIPI SASKIAren ZOZKETAN  
JENDE GUZTIAK PARTE HAR DEZAKE  
Bidali SMSa idatziz TTIPI SASKIA eta zure IZEN-DEITURA **5767** ra



**SENDAVIVA**  
Aventura y diversion para toda la familia  
2 Lote  
4 sarrera  
2 heldu+2 haur



**AQUARIUM**  
DONOSTIA-SAN SEBASTIAN  
DONOSTIA  
943 44 00 99  
[www.aquariumss.com](http://www.aquariumss.com)  
Lote 1  
2 sarrera

Zozketan parte hartzeko epea: irailaren 17tik 24ra. Irabazleen izenak urriaren 2ko aldizkarian argitaratuko dira. Mezuaren kosta 1.20€ (BEZ gabe). Zure datuak ttipi-ttiparen fitxategian gordeko dira aurrerantzean izanen diren eskaintzen berri emateko. Zuzenketa edo deuseztapenen bat egiteko deitu 948 63 54 58ra.

ESKATU ZURE TXARTELA  
**948 63 54 58** telefonoz

**Lur**

irailak **20** larunbata

# DENBORALDIAREN HASIERA

01:00 9€ kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

JUSTERINI **J&B** BROOKS  
BESTA

irailak **21** igandea

**Pirritx eta Porrotx**

18:00 6€ Salmenta puntuak: Antxitonea eta Lur Aretoko takilla

ASTE BURURO GIRO HOBERENA!!  
MUSIKA, BIDEOAK, SMSak...

# ANIMATU!!

ETA BIHUR ZAITEZ LURTARRA!!

BISITA EZAZU  
GURE WEB ORRIA

[LURELIZONDO.COM](http://LURELIZONDO.COM)

Heineken

  
Baztango Udala

ETORRI BAINO LEHEN, PASA ZAITEZ HERRIKO TABERNETATIK